

hh

hik hasi

GAIA: FAMILIA EREDUAK ETA ESKOLA • ELKARRIZKETA: AUCOUTURIER  
 • EKARPENA: BERTSO ANTZERKIA •  
 ESPERIENTZIA: SAHARAKO IKASLE-  
 AK • HEZKUNTZA SISTEMEN TRUKEA



BERRIAK

# Euskal Herriak bere hezkuntza

TARTALO



PATXI ERREMENTARIA



GIZON HARRIGARRIAK



MAKILAKIKKI



Bideoan ikusteko



Ipuinak irakurtzeko



Jokoak dibertitzeko

EUSKAL  
IPUINAK

Eta gainera  
lau ipuinak  
VHS bideoan



Laguntzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultur, Hizketa, Gaiak eta Kibernetika Departamentua



gaia

## FAMILIA EREDUAK

Gaur egun dauden familia eredu desberdinak ikusirik, horri eskolan zer-nolako erantzuna ematen zaion jakin nahi izan dugu. Hainbat familia ereditutako elkarteekin bildu gara euren kezak eta eskaerak entzuteko asmoz.



elkarrizketa

## BERNARD AUCOUTURIER

Praktika psikomotrizitatearen aitarekin psikomotrizitatearen ibilbidea eta egun eskoletan betetzen duen lekua izan ditugu hizpide.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## FAMILIA EREDUAK

Eta eskola

14 elkarrizketa

## BERNARD AUCOUTURIER

22 ekarpena

Inaxitoren ametsak bertso antzerkia

24 esperientzia

Saharako ikasleak Zornotzan

26 esperientzia

Literatura bizitzeko modu bat

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Hezkuntza sistemen trukea

Itziar Aramaio

33 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Arangoiti, elkartasunaren ikastola

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilu eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz  
Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizaguirre Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAM&Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.  
Azaleko irudia: Hezkuntza Deialdiak deitutako manifestazioa Iru ean abenduaren 20an (Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/XII /19. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

# hik hasik

## zure parte-hartzea

### ezinbestekoa du harpide zaitez!

### 40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. Deitura .....Tel:.....

Helbidea .....Posta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA  
SARIAK  
(BEZ barne)

40 euro

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



# editoriala

## urtarrila

### Izena batzuek, eta izana besteek. Nork inposatzen du hemen bere hezkuntza?



Euskal Herriko eskoletan eta ikastoletan ahalegin handia egin da eta egiten ari da gure Herri ezaugarriak garatzen eta aberasten. Horrek, berarekin, gure eskola propioa indartzera garamatza, eta pixkanaka, gure hezkuntza sistema propiorako oinarriak finkatzera.

Abenduaren 19an Euskal Herriko ikastetxeetako ikasle, irakasle eta langile gehienak oporretan zeuden, jada. Hala ere, horietako asko izan ziren hurrengo egunean Iruñera gerturatu, eta Parisko eta Madrilgo gobernuek inposatzen dituzten hezkuntza neurri ezezko biribila eman ziotenak.

Euskal Herriko eskola komunitateak urte asko daramatza bere eskola mota diseinatu nahian. Batzuetan modu oso kontzientean egiten du, eta beste batzuetan, hain era kontzientean ez bada ere, eguneroko jardunean berak ulertu eta gertukoa sentitzen duen hori gartzen ahalegintzen da.

Denborak, bestalde, eskolan konfiantza jartzen duten horiek bide zuzenetik doazela erakusten du, ikasleentzako gertutik diseinatutakoak emaitza ona ematen duela erakutsiz.

Zertara dator, bada, gertuko gestioa, antolaketa, erabakiak hartzea eta abar oztopatzen ibiltzea? Edozein az-

terketa objektibok garbi erakusten du: zerikusi zuzena duten kideek parte aktiboa hartzen badute, eta erabakitzeko ahalmena baldin badute, ezarritako helburuak errazago eta hobeto lortzen dira.

Zertara datoz prozesuak ezartzera, kontrolatzera, baldintzatzera, eskolen ibilbide hausnartua eta naturala oztopatzera; azken finean, itotzera? Zertan oinarritzen dira hainbeste muga jartzeko, egia ezkutatze eta halako izua sortzeko?

Euskal Herrian bizi direnentzat, bertako hizkuntza, euskara, jakin dezaten bitartekoak jartzeko asmoa agertzen den bakoitzean, komunikabideetan kontrako presioa eta hainbat iritzi agertzen da, ez dakigu zer inposatu nahi dela eta abar adieraziz.

Jaio diren herritik joakinak izan eta Euskal Herrian etorkinak direnentzat/garenontzat euskalduntzeko eskola-planifikazioaren bat azaltzen den

bakoitzean, edozein deskalkifikazio botatzen da egitasmoa desitxuratzeko eta indargabetzeko.

Frantziako estatuak, berdintasunaren izenean, bertan bizi diren guztiak behartzen ditu frantsesa ikastera. Derrigorrezkoa dute denek frantsesa jakitea eta erabiltzea, administrazioaren hizkuntza bakarra horixe baita. Espainiako estatuak ere, konstituzioaren arabera, denak behartzen ditu gaztelania jakitera. Geratzen al da Iparraldean frantsesa ez dakien inor? Eta, ba al da leku publiko edo pribaturik hizkuntza horretan edonori erantzuten ez zaionik? Hegoaldean, ez al da gauza bera gertatzen gaztelaniarekin?

Euskaldun izan nahi dugunoi, aldiz, ukatu egiten zaigu aukera hori. Horregatik Iruñean, "Hezkutzan, inposaketarik ez!" aldarria. Eta horrekin batera, "Euskal Herriak Bere Hezkuntza". Munduari, bere ekarpena egin nahian.

# kronika

Hezkuntza Berezirako langileei ez diete euskara jakitea eskatuko Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 2002. urtean 121 plaza berri sortzeko deialdi publikoa egitea hitzartu zutenean patronalak eta sindikatuak, 2. hizkuntza perfila eskatzea erabaki zuten. CCOO sindikatuak, ordea, erabaki horren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen eta EAEko Auzitegi Nagusiak balio gabe utzi du aurrez hitzartutakoa.

Hori dela eta, sektorean gehiengo duten EILAS, ELA eta LAB sindikatuak agerraldia egin zuten CCOOren jarrera kritikatzeko. Prozesu judizialak "euskararen aurka erabiltzea" eta Hezkuntza Berezirako langileen negoziazio kolektiboa "zapuztea" leporatu zioten. EAEko Auzitegi Nagusiak erabaki hori hartzeko erabili duen argudioa zera da: Heziketa Bereziko irakasleek ez dutela dozentziari eskaintzen. Hori hala izanagatik, ikasgeletan egoten dira premia bereziak dituzten haurrei laguntzen eta horretarako beharrezkoa da irakasleen azalpenak ulertzea.



## Euskal Unibertsitate Legerik ez dago

Aldizkariaren erredakzioa isteko unean euskal Unibertsitate Legea airean zegoen. Abenduaren erditik aurrera gauza anitz gertatu ziren politikarien artean.

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordea Unibertsitate Lege berria eztabaidatzen eta adosten jardun da azken hilabeteotan, baina abenduaren 11n ordura arte egindako lana kolokan gelditu zen, Martin Aranburu Batzordeko bozeramaileak Batzordea bertan behera uzteko erabakia hartu ondoren. "Barne arazo larriak" argudiatu zituen erabaki hori hartzeko.

Hasieran SA, PSE-EE eta PP alderdiek zuzenketak egin zizkioten Unibertsitate legearen proposamenari. Azken asteotan egindako bileretan Hirukoak SAren 50 zuzenketa inguru onartu zituen, eta PSE-EEren beste hainbes-

te. Gerora, baina, PSE-EEk eta PPk atzera bota zituzten euren zuzenketak. Orduan, SAren zuzenketak soilik gelditu ziren eta haren zuzenketekin soilik aurrera jotzeari ezezkoa eman zioten EAJk eta EBk abenduaren 6an. EAK, al-diz, SAren zuzenketak onartu zituen.

Ondorioz, legea inolako zuzenketarik gabe onartzeko bidean jarri zen.

Unibertsitateko irakasleen sindikatuak gaiaren politizazioa salatu zuten, eta Donostiako Ibaetako campusean hainbat ikasle eta kolektibok itxialdia egin zuten Unibertsitate Legearen ondorioei buruz eztabaidatzeko.

Aurretik ere unibertsitate eta hezkuntza munduko eragileek hainbat aldaketa egiteko eskaera egin zuten, eta baita euskal unibertsitatea sortzeko lege proiektua aurkeztu ere Gasteizko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan. Batak zein besteak, ordea, atzera bota zuten herri ekimena, tramitara onartu ere egin gabe.

Horregatik, proposamen horien berri emateko, agerraldi publikoa egin zuten aipatu eragileek. Orain Hezkuntza Batzordean eztabaidatzen ari diren Unibertsitate Legeak LOU legearen "erabateko menpekotasuna" erakusten duela salatu zuten. Egoera horri buelta eman eta Euskal Herriak bere osotasunean behar duen unibertsitatearen alde ausardiaz jokatzeko eskatu zituen Eusko Jaurlaritzari.

Haur nintzelarik matematika zein zientzietarako ahalmen izugarriak nituen. Erdi mailak ikasketa garaian guztiak galdu nituen, piper-hautsik balio ez zuten irakasleak nituelako.

Antonio Gramsci



Udal haur eskoletako langileak greban gurasoen eta haurren babespean

Iruñeko udal haur eskoletako langileek greba egin zuten abenduaren 10ean. Greba egitearen arrazoia ezzen izan soldata igoera eskatzea, baizik eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat kalitatezko hezkuntza eskatzea.

Greba deialdiak erantzun zabala izan zuen; 110 langiletik 9 baino ez baitziren lanera joan. Gurasoen aldetik ere, babes handia jaso zuten; 680 neska-mutiletatik 56 soilik joan ziren haur eskolera.

Udala hartzen ari den neurrien aurrean kezkatuta agertu ziren langileak zein gurasoak. Batetik, udala eskoletako hainbat zerbitzu pribatizatzen ari

dela azaldu zuten, besteak beste, garbitzaile eta sukaldari postuak. Bigarrenik, hezitzaile gehiagoren beharrea daudela aldarrikatu zuten. Martxoan egingo diren oposaketetan 20 lanpostu eskainiko dira, eta langileen ustez 41 behar dira. Eta azkenik, udalak euskara baztertzeko duen joera ere salatu zuten.

Udaletxe aurrean egin zuten elkarretratzean Iruñeko udaleko EBko, PSNko, EAko eta Aralarreko ordezkariak alboan izan zituzten. Alderdi politiko horiek idatzi bat hitzartu zuten. Haien ustez, gurasoek eta langileek zentro horiek kudeatzen dituen patronatuan ordezkaritza izan beharko lukete.

Ez ziren izan, ordea, egun horretan elkarretratzea egin zuten bakarrak. Izan ere, Arrotxapea auzoko haur eskola euskarazkoa izan dadin eskatzen duen plataforma ere han bildu zen. Gaur egun, bi haur eskola dira auzo horretan, biak gaztelaniaz, eta gurasoek euskarazko zentroa edukitzeko nahia agertu dute. Gurasoen %71 euskarazko haur eskolaren alde agertu da eta 2.100 sinadura bildu dituzte.

Iruñeko udalak, euskarazko haur eskola eskaintzeko partez, gaztelaniazko eta ingelesezko eskaintza elebidunaren alde egin du, gurasoen eskaerari muzin eginez. Euskarazko eskaera eta eskaintzaren artean dagoen desoreka salatu zuen plataformak.

Eskoletan erlijio ikurrak debekatzeko lege baten alde agertu da Jacques Chirac, Frantziako lehendakaria. Frantzian 1905ekoa da laikotasunaren legea; berau indartu egin nahi duela esan zuen argi Chiracek, eta eskolari dagokionez, debeku zehatzak jarri nahi ditu lege berri baten bidez. Eskolan ezingo dira erabili erlijio sinesmenak agerian jartzen dituzten jantzi eta ikurrak (esaterako, beloa). Baina, ikur guztiak ere ez omen ditu debekatu: tamainaren arabera bereiziko omen da "zilegi" dena eta ez dena. Chirac-en hitzetan, *"ikus daitezkeen ikur ttipiak, hala nola Daviden izarra, gurutzea eta Fatimaren eskua, ez dira debekatuak izanen"*. Argitu ez duena da, nola bereizten den handiaren eta ttipiaren artean.

Eskola egutegian bi festa egun berri finkatzeko proposamena ere egin zitzaion Chiraci: musulmanentzat Aid-El-Kebir eguna eta juduentzat Kippour eguna eskatzen zuten. Chiracek ez omen ditu bi festa horiek eskola egutegian sartuko ofizialki, hala argudiatuz: *"bi festa egun horiek sortuko bagenitu eragozpen handiak eragin genizkieke egun horietan lanean ari diren gurasoei"*. Dena den, eskuzabalak izateko eskatu zien eskolako zuzendariari, esanaz egun horietan eskolara joaten ez diren ikasleei azalpenik ez eskatzeko eta azterketarik ere ez jartzeko egun horietan bertan.

Lege berria datorren ikasturterako jarri nahi du indarrean Chirac lehendakariak. Laikotasunaren ize-nean hartutako erabakiok ez ditu, ordea, eskolara mugatu nahi izan: zerbitzu publikoetan ere arau irmoak finkatuko dituztela iragarria du.

# Familia ereduak eta eskola



Aski du norik bere ikasgelari erreparatzea, jabetzeko gaur zenbat familia eredu desberdin dauden. Ikasgela askotan, familia eredu tradizionala jada gehiengo izate-tik salbuespen izatera ere pasa da. Bananduak, guraso bakar-rak, adoptatutako haur-rak, harrera etxetan bizi direnak, familia homosexua-lak... eta beste hairbat eredu badira gure gizartean. Etorki-nekin, gainera, beste gizarte-tan tradizionalak diren ereduak datozkigu, gurean be-ri izatera.

Gizartean jada errealtate nabarmena dena, eskolan ez da oraindik islatzen, ordea. Eredu tradizionala da oraindik irudikatzen den bakarra testu liburu, ipuin zein ikas-gaietan. Horixe da guraso kolektibo askoren kezka, eta ja-da beste kolektiboekin elkar-tuta hasiak dira eskolako ga-bezia horiek aztertzen. Euren irakurketa jaso asmoz fami-lia gurascabakarrekin, haur adoptatuen gurasoekin eta homosexualen kolektiboare-kin bildugara.





Gema ARTOLA

ASFAMOGIko lehendakaria

Familia gurasobakarrak adierazten du, pertsona bakarrak hartzen duela beregain familiaren pisua. Gehienez haurren zaintzari dagokio (bai banandua delako, edo alarguna edo ama ezkongabea delako), baina adineko pertsona baten kargu egiten dena ere familia eredu honetan sartzen da. ASFAMOGI elkartera jo dugu, Gipuzkoako Gurasobakarren Elkartera. Elkartearen 300 partaide daude eta Gema Artolarekin hitz egin dugu, lehendakariarekin.

# Familia gurasobakarrak

Gizarte mailan, familia eredu honen onarpenean izugarritzko aurrerapausoak ematen ari direla ikusten du Gemak. *“Geroz eta banaketa gehiago daudenez, gizarteak geroz eta ‘normalago’ ikusten gaitu”*. Errealitatean hain ugaria den familia eredu horrek, ordea, eskolan islarik ez duela iruditzen zaio. *“Eskola eta testu liburuak gizartearen atzetik doaz. Eskolan familia eredu klasikoa da agertzen den bakarra”*. Irakasleek gurasoen errealitatearen berri jakiten ote duten galdetuta, hori aukera pertsonal bat dela nabarmendu digu Gemak. Normalki gurasoak irakaslearengana jotzen du, *“baina, zoritxarrez, ez haurraren benetako egoerak kezkatuta, baizik eta kustiari lotutako kontuengatik. Tutoreengana jotzen da lege mailako eskakizuneri erantzutearren, alegia, irakasleek adieraz dezaten haurrak ongi daudela eta gurasoak bileretara joaten direla, haurrerekiko ardura badutela”*.

## Harremanen kultura falta

Internet eta informatika ikastaroak dira irakasle gehien erakartzen dituztenak. Baina, egun, harremanetan, afektibitatean formazio ikastaroak jasotzea lehenetsuneko beharra dela adierazi digu irakasle batek. *“Irakasleok edukiez asko dakigu, didaktikaz ere teoriarik asko dakigu, baina harremanez ez dakigu. Eta ahaztu egin zaigu gizakiari bere osotasunean begiratu behar zaiola, beregan eragina duten inguru guztiak kontuan hartu behar ditugula”*. Horiek Itziar Goñiren hitzak. Irakaslea da Itziar, Villabonako Erniobea institutuan, lehen zikloan. Ama banandua ere bada.

Itziarren ustez, lehenik eta behin, gurasoek zintzotasun osoarekin azaldu behar diote irakasleari euren errealita-



Itziar GOÑI

Villabonako Erniobea institutuko irakaslea

tea. Eta laguntza eskatu behar diote seme-alaba horrentzat. *“Ez gaude ohituta, baina jada bada ordua gurasoek laguntza eskatzekoa”*. Familiaren egoera jakinda, ordea, irakasle askoren jokabidea ez omen da egokia izaten: *“eskolan jakiten dutenean bananduen seme-alabak daudela, jada haur horiei akats bila hasten dira irakasleak, ea non duten ‘trauma’ edo ‘ondorioa’”*. Irakasle askok nahastu egiten omen du ikaslearen benetako errealitatea, irakaslea pertsonalki bizitzen ari den errealitatearekin: *“Neronek irakasle askorengana ikusi dut, bere bizipenak edo une horretan dituen frustrazioak ikaslearengana ikusten dituela”*.

Bananduen kasuan, eskolak egin izan duen beste akatsa, aita ahaztea izan dela dio. Eskolak aitari ere helarazi behar dizkio oharrak, notak, bilera deiak, haurrarentzat aita figura garrantzitsua delako bere bizitzan, nahiz amarekin bizi. Zer ikasi asko legoke, beraz, harremanei buruzko formazio ikastaroetan.



# Haur adoptatuen gurasoak

## Ume Alaiak elkarteak



Rosa BARRIO, Eva LANDA, Elena ELOSEGI,  
Junkal PEREZ,

Ume Alaiak elkarteko kideak

Haur adoptatuen gurasoen elkarteak da Ume Alaiak. Eskolan euren errealitatea kontuan ez izateak zenbaterainoko trago garratzak sor ditzakeen badakite. Beste familia ereduetakoko lektiboekin biltzera eraman dituz horrek, eskolan ematen den ereduaz aztertzeko. Ez dute adopzioaren gaia bereziki lantzea eskatzen, eredu ezberdin guztiak kontuan izatea da nahi dutena, familia tradizionala agertzen denean bezain natural.

### Jaiotzari buruz galdezka

Haur eskolatik eskuan lan fitxa bat zutela etortzen hasi ziren seme-alabak etxera. Jaiotzari buruzko lan fitxa bat zen, eta gurasoen laguntza eskatzen zitzaien betetzeko: jaio zirenean zenbat pisatu zuten, bularra ala biberioia hartu zuten, argazki bat jartzeko, eta halako

xehetasunak eskatzen zituen fitxak. Guraso denek erantzun ezin dituzten galderak dira, ordea. Umezurtztegi batzuetan dokumentazio hori dena ematerik badute, baita argazkia ere. Beste guraso batzuek haurren lehen egunei buruzko informaziorik ez dute, eta euren seme-alabaren lehen argazkia 2 urterekin aterea da. Nahiz haurrok etxetik jakin euren iraganaren eta jatorriaren berri, ez da une xamurra ikasgelan lagundena "nik hiru kilopisatu nituen" edota "begira nire jaiotzako argazkia" esanaz ikustea, eta eurek fitxa ezin izan dutela bete sentitzea.

Eszena hori eskola batzuetan urtero errepikatzen zela jabetu ziren haur adoptatuen gurasoak. Edota zuhaitz genealogiko bat osatzeko eskatzen zitzaiela, argazki eta guzti. Alegia, euren egoerara, euren iraganera ez zela egokitzen eskolan lantzen zena. Kezka horrekin, Ume Alaiak elkartekoak antzeko arazoak izan zitzaizketen beste elkarteekin biltzen hasi ziren: banandutako gurasoen elkarteekin, AGIPASerekin

edota SOS Arrazakeriarekin, esaterako. Familia eredu ezberdinetako elkarteok urtebete daramate biltzen, euren kezkei buruz oinarizko dokumentu bat osatzeko. Ikastolen Elkartearekin eta Hezkuntza Sailarekin biltzekoak dira gero, euren kezka jakinarazteko. Guraso gisa hain argi ikusten dituzten hainbat aspektu jakinarazi nahi dizkiete profesionali (bai irakasleei eta baita edukiak diseinatzen dituztenei ere, testu liburuak ahaztu gabe). Profesional horiek baitute gaitasuna adin bakoitzeko haurrek ulertzeko moduan azaltzeko gauzak, eta gainera profesional horiek direlako gela barruko errealitatea antolatu behar dutenak, haur guztien etxeko errealitatea kontuan edukita.

### Naturaltasunez agertzea

Eskolari ez diote eskatzen adopzioari gai bezala arreta berezia jartzeko. Besterik gabe, familia ezberdinak daukela azaltzea da eskatzen dutena. Elena Elosegik dion bezala, "haurrek ikas dezatela dagoena, egun ez baita hori erakusten; egun erakusten dena da daukela familia eredu askotariko bat". Irakasleen aldetik sentsibilitate gehiago behar da horretarako. Rosa Barriok dioenez, "azaltzen ari dena kasu guztietara egokitzeke erraztasuna eduki behar luke irakasleak. Esaterako, irakasleak esaten badu "haur denak sabeletik datoz", jakin dezala nibarzen, erantsiz "baina gero modu asko daude guraso izateko edo seme-alaba izateko". Edo haur batek botatzen badu "bada ni hegazkinean etorri nintzen" (nire alabak hala esaten zuen, nahiz eta nik behin eta berriz azaltzen nion bere istorioa), irakasleak izan dezatela trebetasuna haur horri erantzuteko "zu ere sabel batetik sortu zinen, nahiz eta ez zen Rosaren sabela".

Irakasleek jarrera ona eta interesa



# G A I A

## Familia ereduak eta eskola

# G

dute familien aniztasuna lantzeko, baina material falta da euren kezka nagusia. Testu liburuetan eta ipuinetan ez da apenas errealitate hori islatzen. Ume Alaiak elkartean badituzte ipuin gutxi batzuk, eta irakasleek eskuetan duten guztia eurei pasatzeko eskatzen diete. Junkal Perezen ustez, adopzioari buruzko ipuinak erosteaz kezkatzen direnak adopzio gurasoak dira. Junkalek faltan botatzen du edozein eskolatan material hori egotea, inguruko haurrek eta, orokorrean gizarteak, ere jakin dezan gaiari buruz.

**Etxeko tratamendua, irakasleak jakin beharrekoa**

Guraso bakoitzak irakaslearekin zuzeneko tratua eduki behar du, kontatzeko "guk etxean modu honetan darabagu gaia". Ez baitago orokortzerik; familia bakoitzak bere modura bizi du eta lantzen du seme-alabekin adopzioaren gaia, jatorria, iragana. Junkal Perezen hitzetan, "lantzeko modua eta aspektu horiekiko jarrera oso pertsonala da. Nire alabaren gelan bada beste haur adoptatu bat, eta bere amarengana joan nintzen eurek kontua nola zeramaten jakiteko". Elena Elosegik noraino den pertsonala nabarmentzen digu: "irakasleari asko jota zerorrek zeure semearekin edo alabarekin nola lantzen duzun konta zeniezaioke; baina testu liburu batean ezin duzu jarri no-

la egin behar den. Bakoitzak bere era du, eta ezin da orokortu".

Ikasgelan hankarik ez sartzeko eta etxeko moduak errespetatzeko, ezinbestekoa da, beraz, irakasleak gurasoei entzutea eta euren errealitate partikularren berri jakitea. Baina kontu oso pertsonala ere badenez, besteen bizitza pribatuan muturrak sartzera iristeko arriskua ere badago. Kaleko jendea galdezka hasten denean, Rosa Barriok tarteka eduki omen du sentsazio hori, "gure seme-alabak edonoren seme-alaba izan balitezke bezala. Badirudi haurrari trazu desberdinak ikusteak baimena ematen diola edonori haurraren iraganaz galdezka hasteko. Beste edozein haur ikusita ez dira amari gauza pertsonalak galdetzen hasten. Gure kasuan ere, gauza asko

**Familia bakoitzak bere modura bizi du eta lantzen du haurrarekin adopzioaren gaia. Irakasleak etxeko moduen berri jakin behar du.**

gu eta seme-alabaren arteko istorioaren parte dira, ez dutenak zertan publiko izan". badakite intentzio txarrez ere ez dutela galdetzen. Gainera, jendea ohitzen ari omen da beste trazueta-ko haurrak ikustera, eta gero eta gutxiago geldiarazten omen dituzte kalean.

**Haurrak aurpegi desberdinen aurrean**

Haurrak, ikaskideak, helduak baino askoz ere azkarrago ohitzen omen dira trazu desberdineko ikaskidea ikustera. Naturaltasunean lezio ederra ematen digute haurrek helduoi. Dena den, "arazo gehiago dituzte azalbeltzeko haurrek" zehazten du Junkal Perezek; "alaba txikienaren gelan (bera txinatarrak bada Hegoamerikako mutiko bat, beltzarana dena, eta arazoak ditu". Orain dela gutxi guraso batek elkartera deitu omen zuen, estutasunak jota, azalbeltzeko semea jolas orduan bazterteaz gain, jo ere egiten zutelako gelakideek. Haurrek beti aurkitu behar izaten dute berezitasun bat irrirako aitzakia izateko: betaurrekoak direla, belarri zabalak direla, kiloak direla... eta beraz, gurasook badakite euren seme-alabengan bilatuko duten aitzakia trazu desberdinena izan daitekeela. "Hasieran min izugarria egiten du begira, txinatarrak da" entzuteak, mesprezuz esaten baitute" kontatzen du Junkal Perezek. Elena Elosegik bat dator, baina ez zaio ahazten trazu desberdinak dituen bere alabak behin parkean esan ziona: "begira, ama, beltza da, ez zait gustatzen". Elenak dionez, "haurrak halakoxeak dira, eta haur denak, gainera".

# Homosexualak

## Gehitu kolektiboa



Jose Javier HUERTA eta Olga ALARCON

Gehitu elkarteko hezkuntza lan taldeko kideak

Familia eredutan gutxien ikusten dena homosexualena da; baina ez gutxi direlako, agerian ez daudelako baizik. Ikasgelan ere errealitate hori ezkutatu egiten da, eta ahaztu egiten zaigu haur asko eta asko homosexualak direla eta ez zaiela erreferenterik eskaintzen, horrek sorrarazten duen isolamendu sentsazioarekin. Gehitu kolektiboko Olga eta Javierrek euren ikuspuntua eman digute.

**Familia homosexualak betidanik egon izan dira eta gaur ere egon badaude. Baina ez dira agerikoak. Zer eragiten du ikusezintasun hori?**

**Olga.-** Familia homosexualak sorrera askotarikoak izan ditzakete. Batek, beste harreman heterosexualetatik ekarritako haurrekin osatzen diren familiak daude; bikote homosexual bat elkartzen da, eta nukleo berri horretara lehengo harreman heterosexualetik sortutako haurrak ekartzen dituzte. Beste sorrera modu bat adopzioa da. Baina adopzioaren kasuan, legez, ho-

mosexual bikote batek ezin du haurrik adoptatu haurren jatorrizko herrialde gehienetan (esaterako, Txinan). Beraz, adopzioa guraso baten izenean egiten da eta eskolako paperetan ere familia monoparental bezala agertzen da. Familia osatzeko hirugarren modua intseminazioaren bidez haurrak ekartzea da. Nik uste datozen urteetan eraginik gehien izango duena horixe dela, intseminazio bidez haurdun gelditzen diren emakumeek jada apustu bat egiten baitute agerian izatearen aldetik. Nahiz eta egun Euskal Herrian oso gutxi izan, euren eskutik etorriko da familia kontzeptu berri hori eskolan sartzea.

**Zer garrantzi du eskolan familia homosexualak agerikoak egiteak? Zer garrantzi du, esaterako, haurren eskolako agiri ofizialetan bi amadituela agertzeak?**

**Olga.-** Funtsezkoa da bai haurren heziketarako, baina baita eskolarentzat berarentzat ere. Azken finean, bi aldeak daude inplikaturik, eta beraz, bi aldeak dira aberasten direnak.

Bestetik familia homosexualak eskolan agerian izatea oso garrantzitsua da, haur gay eta lesbianentzat ere erfe-

rente izateko. Ez baitugu ahaztu behar, gu haurrak ere izan ginela. Homosexuala esaten dugunean, beti irudikatzen dugu nerabezartatik aurrerako jendea. Eta, aldiz, esan genezake eskolan ere %10 homosexuala dela, bai haurren artean eta baita irakasleen artean ere. Haurrek erreferenteak behar dituzte, beti bakar-dadean eta isolatuta senti ez daitezen, bestela lekuz kanpo sentitzen baitira.

**Javier.-** "Heterosexualitatearen presuntzioa" deitzen zaio horri. Alegia, "guztiok gara heterosexualak, kontra-koa frogatzen den arte". Presuntzio horrek sekulako gatazkak dakartza, batez ere homosexualak den mutiko edo neskatok batentzat. Aldiz, guraso homosexualen erreferentzia hori edukiz gero, edo jakinez gero zure irakasle bat homosexuala dela, normaltasunez bizitzeko pauso bat izan liteke.

**"Heterosexualitatearen presuntzio" hori zertan antzematen da eskolan?**

**Javier.-** Adibidez neska bati "zein mutil gustatzen zaizu?" galdetzen zaionean. Edo txangoetan, logelatan neskek neskekin eta mutilak mutilekin jartzten direnean, "badaezpada, sexu harremanik egon ez dadin"; alegia, nesken artean edo mutilen artean sexu harremanik ez balego bezala. Arazoa da presuntzioarena ez dela kontzienteki egiten den gauza bat, ez da gogo txarrez egina, jendeak ez du nahita egiten, eta hor dago tranpa.

**Homosexualak diren irakasleak ere ez dira agerikoak.**

**Olga.-** Garen bezala azaltzeari dagokionez, irakasleok geronek ere asko dugu egiteko. Gainera, hezkuntza sistema publikoan behintzat, lan hitzarmenean jasota daude gure eskubideak, eta gero geroni gara eskubide horiek erabiltzen ez ditugunak. Esaterako, bikoteak ebakuntza duenean baja hartzeko eskubidea dugu, baina askok beste aitakiaren baten bidez hartzen ditugunak, bikotean orduenez esateagatik.

**Javier.-** Ezin diogu inori eskatu homosexualitatea normaltzat hartzeko, geronek ez badugu onartzen eta normaltzat jotzen geure burua. Jakina, sor-

gin gurpil bat da: gizarteak onartzen ez duenean homosexualitatea, ez da erreza zeure burua onartzea eta gizartean zaren bezala agertzea.

**Olga.**- Eskola komunitateak pentsatu behar du oraindik jende askok ez duela esaten homosexuala denik. Horrek zerbait adierazten du; horrek esan nahi du ez gaudela hain eroso eskolan, eta eskolak ez gaituela hain ondo hartzen.

**Javier.**- Ez da eskolaren arazoa soilik. Gizarte oso baten arazoa da, eskolan bere isla duena.

**Olga.**- Baina eskolak badu etorkizunarekiko ardura bat, beste erakunde batzuk ez dutena.

**Zenbaiten ustez, homosexuala zarela ez dago zertan esanik, heterosexualek ere ez baitute euren burua hala aurkezten.**

**Olga.**- Kontua ez da zure burua aurkeztu behar duzunik, esanaz: "homosexuala naiz". Kontua da ez duzula ezkutatu behar, normaltasunez azaldu behar duzula zarena. Lankideak senarraz hizketan ari direnean, heterosexualek direla esaten ari dira. Niri galde-tzen badidate: "ezkonduta al zaude?", nire benetako erantzuna da "ez, ezin dut neskaekin ezkondu". Hori ez da aldarrikapen bat egitea, hori da egia ez ezkutatzea, besterik gabe.

**Javier.**- Nik orain arte neutroz hitz egiten nuen, "nire bikotekidea" esaten nuen. Aurten institutu berrira etorri naiz, lankide berriak nituen, eta froga egin dut: "nire mutila" esaten hasi naiz. Eta konturatu naiz ez dela ezertxo ere gertatzen, lankideek natural hartzen dutela.

**Olga.**- Eta horrekin erreferente izatea lortzen duzu, esaterako, orain arte adierazi ez duten irakasleentzat, edo ikasle asko eta askorentzat. Halako prozesuak oso garrantzitsuak dira homosexualtasuna "normaltzat", naturaltzat jotzeko. Ez ezkutatzearena, denok egin behar genuke.

**Homosexualitatea nola landu izan da eskolan?**

**Javier.**- DBHn heziketa sexuala lantzen denean, homosexualitatea gai berezi bat bezala lantzen da. Eta ez dela gai berezia aldarrikatu nahi dut.

**Olga.**- Sexu esparruan kokatzen gaituzte eta homosexualitatea ez da sexu kontua. Homosexualitatea izateko era bat da, eta hor afektibitatea, maitasuna, bizipenak ere sartzen dira. Kontua ez da sexualitatea lantzea eta horren barruan gu aparte aztertzea. Literaturan ere homosexualak badaude, historian ere bagaude, filosofian ere bai, eta hori izkutatu egiten da. Bizitzarekin zerikusia duten gauzek eta, oro har, gai guztiek, denok "berdintzat" hartzen gaituzte (alegia, "denak heterosexualak gara"), eta gero sexualitateaz hitz egiten denean, orduan agertzen dira homosexualak, eta horrela, badirudi sexu kontua soilik dela.

**Nola landu behar litzateke?**

**Olga.**- Errealitatean gertatzen dena azaltzeko ez duzu gai batean bereziki landu beharrik. Esaterako, familia lantzerakoan, fitxatan edo marrazkian beti agertu ohi da aita eta ama edo ama bat soilik, eta haurrei sekula ez zaizkie eskaintzen egon badauden beste aukerak. Jakina, aitzakia betikoa da: "baina non daude, bada, familia homosexual horiek? Haur txikiekin ezin da euren errealitatek kanpoko konturik landu, ezin baitute ulertu". Horren erantzuna da, askotan ez dakigula haur horien etxeko errealitatea zein den ere, gurasoek normalean agerian uzten ez dutelako. Sorgin gurpil bat da azkenean. Gurasoak ez du agerian utzi nahi seme-alabak irainik eta estigmatizaziorik jasan ez dezan, baina hala irakasleak ere ez dira jabetzen haur horren egoeraz.

**Gehitu kolektiboaren barruan hezkuntza lantaldea sortu zenuten orain bi urte. Zeri eman diozue lehentasuna?**

**Olga.**- Gure ustez premia larriena duen adinari begira hasi gara lanean: Bigarren Hezkuntzari begira. Oso larri-

tuta baikaude datu batzuekin: Euskal Herrian ez dago halako inkestarik, baina espainiar estatuan, esaterako, nerabezaroko suizidio kasuetan, homosexualen suizidio kasua lau aldiz biderkatzen da. Halako kopuruek adierazten dute zer sufrimendu dagoen gazte asko eta askorengan.

**Javier.**- Adin horri begira, liburuxka bat prestatu dugu, oraintxe inprentatik atera berria dena. "Homosexual orientazioa" du izena, eta 26 galdera ditu. Eskolatan banatuko dugu. Baina liburuxka ez dugu ikasleentzat bideratu, irakasleentzat baizik, aipatu dugun kontzientzia hori sor dadin irakasleengan. Euren burua lantzeko materiala da, errealitate hori badagoela jabe daitezen, eta gero kontuan eduki dezaten eguneroko dinamikak planteatzerakoan.

**Olga.**- Bigarren Hezkuntzari erantzuteko premia gorria ikusi dugu, baina argi dago errealitate hori Haur Hezkuntzatik hasita landu behar litzatekeela. Guraso homosexual batzuekin harremanetan gaude, eta gure hurrengo pausoa izango da familia horien haurrek eskolan sarrera ona eduki dezaten lantzea

**Zuek ari zarete lanean. Baina ez da homosexual kolektiboaren ardura soilik izango, ezta?**

**Olga.**- Eusko Jaurlaritzan Gizarte Gaietarako Saitetik aurrerapausoak ikusten dira bikote legea dela edo adoptatzeko eskubidea dela. Pentsatzekoa da neurri horiekin guztiekin errealitate bat eskolara doala. Baina gero ikuspegi eta oinarri horiek guztiak Hezkuntza Sailean ez dira planteatzen. Hezkuntza Sailak gobernu horren politikarekin koherentea behar du izan. Hezkuntza Sailak formazio proiektuak, aurrekontuak eta errekursoak jartzen ez baditu, oso nekez aterako da politika integratzaile bat arlo horretan.

G A I A  
Familia ereduak  
eta eskola

G

# bernard aucouturier

Psikomotrizista eta praktika  
psikomotrizitatearen sortzailea



Egin, egin, egin esaten du  
gizarteak eta ez dago haurraren  
ulerkuntza eta entzuketaren  
filosofiarik



Uste dut  
gaur egun ez  
zaiola behar  
adinako  
garrantzirik  
ematen  
gorputzaren  
mugimenuaren  
bidezko garapen  
psikologikoari.

Ezagutza  
kognitiboari  
garrantzi  
handiagoa ematen  
zaio, gehiegi  
baloratzen da  
alderdi  
kognitiboa

Praktika psikomotrizitatearen aita da Bernard Aucouturier frantsesa. Euskal Herrian jarraitzaile asko ditu, Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolaren inguruan mugitzen direnak, batik bat. Eskola horrek behin baino gehiagotan ekarri izan du Euskal Herria, eta iaz ere Gasteizen azaroaren hasieran ospatu ziren jardunaldiak aritu zen.

Txikitatik giro pedagogiko irekian hezia izan zen. Aita irakaslea zuen eta antzerkia asko gustatzen zitzaiona. Freineten laguna zen, eta haren pedagogia jarraitzen zuen. Ama, berriz, ezkerreko militantea zen, gai sozialekin oso konprometitu zegoena eta politikan murgildua zebilena. Giro horretan, gurasoek inoiz ez zuten behartu eskolara joatea, eta nahi zenean joaten zen.

Haur eskoletan asko ibilia da eta urte askotako eskamentua du. Arlo teorikoan zein praktikokoan jarduna da. Liburu berri bat argitaratzekoa da laster: Praktika psikomotrizitatean soilik zentratu gaiteke, haurraz, pedagogiaz eta hezitzaileen jarreraz asko hitz egiten du liburuan. Grau argitaletxeak jarriko du gure eskuetan gutxi berru.

## Zer da zuretzat psikomotrizitatea?

Modurik sinpleenean esanda, mugimenduaren eta psikismoaren arteko erlazioa azaltzen duen terminoa. Haurren kasuan, termino horrek agerian jartzen du haurren garapen psikologikoan mugimenduak duen garrantzia. Hau da, psikomotrizitateak gorputzaren mugimenduaren bidezko haurren garapenean jartzen du arreta. Haurren garapen psikologikoa gorputzaren mugimenduaren bitartez ematen da. Gorputzaren bitartez, baina kanpoko munduarekin harremanetan.

## Nolako eboluzioa izan du psikomotrizitateak bere sorreratik gaur egun arte?

Eboluzio interesgarria egon da. Eta eboluzio hori, nahitaez, 68ko maiatzetik pasatzen da. Garai hartan adierazpen askatasuna maila guztietan egon zen, baina askatasun hori pixkanaka murriztu egin da. Nahiz eta gaur egun ideia zoragarri haiek oraindik egon badauden, buruan soilik gelditu zaizkigu, ez praktikan, ez eguneroko bizitzan. Ez dute aplikazio praktikorik gure egunerokoa.

Oso zaila da berrikuntza pedagogikoa gauzatzea. Aurrerapausoak eman genituen, baina gero gelditu eta atzeraka joan gara. Begira Frantzian zer egin zuten instituzio freinetiarrarekin. Freinet formazio ofizialak erreperatu du, eta haren filosofia eta pedagogia dese-






gin ditu. Egun ez da existitzen.

Freineten pedagogiak bazituen berrikusi eta aldatu beharreko gauzak, baina gauza da filosofia desagertu dela. Jada ez dago mugimendu pedagogikorik Frantzian.

### Zenbat baliosten da psikomotrizitatea gaur egun?

Uste dut gaur egun ez zaiola behar adinako garrantzirik ematen gorputzaren mugimenduaren bidezko garapen psikologikoari. Ez da kezka pedagogikoaren ardatz. Egun ezagutza kognitiboari garrantzi handiagoa ematen zaio. Nire irudiko, gehiegi baliosten da alderdi kognitiboa eta emozioekin, jolasarekin, ekintzarekin zerikusia duen oro mugatzen du. Eta sarritan ez gara oharitzen ar-  
lo



kognitiboa gorputzarekin eta kanpoko munduarekin dugun harremanaren bitartez garatzen dela. Haurrak duen lehen ezagutza ez da kognitiboa, korporala baizik.

Presioak daude gurasoen eta instituzioen aldetik haurra ahal den azkarren irits dadin gizaki kognitibo eta afekturik gabekoa izatera.

### Zergatik uste duzu ez zaiola garrantzi handiagoa ematen?

Lehendabizi, mundu arrazional batean gaudelako. Bertan, haurrak berehala bihurtu behar dira heldu. Segituan pentsatu eta jokatu behar du heldu batek bezala. Ahaztu egiten dugu haurrak bere benetakotasun eta berezitasun propioa duela eta ez duela helduarena-ekin zerikusirik. Haurraren heldutze



bat dago. Jakina haurrak heldu bat behar duela garatzeko, baina ez diezaiola presarik sartu.

Haurraren originaltasunari dago-kionez, espresioz, emozioz eta akzioz betetako gizakia da; hori da haurra.

Bestalde, egia da gure gizartean haurrek enbarazu egiten dutela; gurasoei enbarazu egiten diete, irakasleei enbarazu egiten diete... ez daukatelako direna izateko eskubiderik, benetakoak izateko eskubiderik.

### Nola eman geniezaioke horri buelta?

Benetan, eskolan beharko litzatekeen iraultza da haurra ebidentzian jartzea bere emozioekin. Eskolan, orokorrean, ez guztietan, ez dira kontuan hartzen emozioak eta haurraren bizitza emozionala. Zenbait hezitzailek ulertu dute haurrari hitza eman behar zaiola, baina orokorrean, haurrari ez zaio hitzik ematen. Ez zaio uzten bere emozioak, beldurrak adierazten. Emozio hori edonolako adierazpenaren bidez, ahozkoa zein ez ahozkoa, agertzen ez bada, barruan erreprimetuta gelditzen da, eta horrek ez dio uzten haurrari ikaskuntzara bideratuko duen lasaitasuna eskuratzen eta mundura irekitzen. Eta hori da arazo handiena, baita praktika psimotrizitateari buruz hitz egiten ez badugu ere. Praktika psikomotrizitateaz haratago ere haurra bere originaltasunean errespetatu behar da.

Egia da gure  
gizartean haurrek  
enbarazu egiten  
dutela; gurasoei  
enbarazu egiten  
diete, irakasleei  
enbarazu egiten  
diete ez  
daukatelako  
direnak izateko  
eskubiderik,  
benetakoak izateko  
eskubiderik

Mundu  
arrazional batean  
gaudenez, haurrak  
berehala bihurtu  
behar du heldu.  
Segituan pentsatu  
eta jokatu behar  
du heldu batek  
bezala. Ahaztu  
egiten dugu  
haurrak bere  
benetakotasun eta  
berezitasun  
propioa duela  
eta  
ez duela  
helduarenarekin  
zerikusirik

Bere emozioak adierazten utzi behar zaio, haurra batez ere emozioz betetako gizakia baita.

**Zer desberdintasun dago emozioak adierazten uzten zaien eta uzten ez zaien haurren artean?**

Emozioek bere baitan dutena erreprimitzeak gorputza ezegonkortzen du eta gorputzaren funtzioak ezegonkortzera irits daiteke, hala funtzio begetatiiboak nola harremanekoak (ibili, gauzak hartu...).

Aldi berean, emozioak gordetzeak funtzio psikikoak ezegonkortzen ditu. Zeren haurrak ez baitu kanpoko mundua den bezala ikusten. Barruan dituen emozio desitxuratuen bitartez baino ez du ikusten mundua. Kanpoko munduaren ikuspegi murriztua dauka. Izan ere, emozioak bere baitan bilduta edukitzean, bere egonezin emozionalean zentratu egongo da eta kanpoko munduari itxita. Ondorioz, mundu horrekin duen harramana oso murrizta da; bai komunikazio gaitasunean, bai buruko irudiak mugitzeko gaitasunean, bai gaitasun kognitiboetan. Niretzat, hemen garrantzitsua den kontzeptu bat agertzen da: dezentrazioa.

**Zeri deitzen diozu dezentrazioa?**

Dezentrazioa kanpoko munduaren eta norbanakoaren arteko distantzia jakin bat hartzeko gaitasuna da. Niri dagokidanaren eta kanpoko mun-

duaren artean banaketa garbia egiteko gai baldin banaiz, ni naizenaren eta kanpoko mundua denaren artean, oso erraz azter ditzaket kanpoko munduaren parametroak. Haatik, kanpoko mundua nire emozioen eskakizunen bitartez soilik ikusten baldin badut, are gehiago, isilarazi egin diren emozioen eskakizunen bitartez, ezin dut kanpoko munduaren analisirik egin. Oso barruan nago, nire afektuetan oso zentratua, eta beraz, ezin dut mundua objektibotasunez ikusi.

Haurrari dezentrazio bide horretan joan dadin laguntzeko, oso kontuan hartu behar den prozesu pedagogiko bat dago. Bertan, praktika psikomotrizitatea oso bitarteko ona da. Eskola barruan beste bitartekoekin batera erabil daitekeen tresna da.

**Nola gauzatzen da praktika psikomotrizitatea? Esplika iezaguzu laburki.**

Haurrari heldutasun psikologikoko ibilbide bat egiten laguntzen zaio ekintzatik eta jolasetik abiatuta. Beste modu batera esanda, egitearen plazeretik abiatuta.

Hori marko konkretu eta zehatz batean garatzen da, hots, psikomotrizitate aretoan eta ordubetean. Bertan bi txoko daude eta horietan haurrak inbesti dezake. Horrek ahalbidetuko dio haurrari gorputzaren plazer libretik hizkuntzaren edo irudiaren bidez adieraz-



teko plazerera pasatzea. Hau da, gorputzetik hizkuntzara doan heldutasun ibilbidea egiten du.

Heldutasun ibilbide horrek haurren eboluzioa laburbiltzen du gutxi gorabehera hiru urtetan zehar. Horregatik, praktika psikomotrizitatea egiten dutenean oso azkar eraldatzen dira, heldutasun ibilbide bat eginarazten zaielako denbora gutxian.

Horri guztiari, noski, hezitzailearen eta haurren arteko erlazioaren kalitatea gehitu behar zaio. Arreta, entzumen, prest egotea, komunikazioa eta proposamenen argitasuna gehitu behar zaizkio. Hezitzaileak ere segurtasun testuinguru horren parte izan behar du. Horrek ez dio mugatzen hezitzaileak memento konkretu batean mugak jartzea eta "hori ez egin" esatea. Zenbat eta gehiago errespetatu haurra, orduan eta errazago onartuko du hezitzailearen ezezkoa. Zeren ez baita hezitzailearen sadismotik datorrez ezezkoa. Haurrari bere pentsamenduaren egituraketa sinbolikoa garatzen laguntzen dion ezezkoa da. Hau da, ez da diziplinazko ezezkoa, ezezko egituratzailea baizik. Hezitzailearen egiturazko estalkia deitzen diot horri.

### **Hezitzailearen jarrera oso garrantzitsua da. Zer ezaugarri azpimarratuko zenuke zuk?**

Komunikazioa da funtsezko ezaugarria. Baldintza hori ezinbestekoa da. Komunikazioa, noski, norbait entzuna denean sortzen da, ez bestela. Hezitzaileak haurrari hitza eman behar dio eta bere buruaz mintza dadin lagundu behar dio, horrek lagunduko baitio haurrari idatzizko komunikazioari gustua hartzen.

Idazketaren ikaskuntza guztiak hitzaren eta komunikazioaren ikasketatik pasa behar du ezinbestean.

### **Praktika psikomotrizitatea landu al liteke gazteekin eta helduekin?**

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. mailan lantzen da, hor dauka bere osotasuna. Zergatik? Aktibitate guztiak ez direlako egokiak adin guz-



tietarako.

Praktika psikomotrizitatea ekintzarako eta jolasteko plazer bezala ulertuta, bitarteko ezin hobea da haurrari bere estualdiak arintzeko. Estualdia niretzat ez da gutxiesgarria edo peiorati-boa, denok bizi izan baitugu.

Haurren estualdiak gutxi gorabehera 7 urtetik aurrera arintzen dira. Haurren garapen psikologikorako garrantzitsua den etapa horretan, 6-7 urte arte proposatzen zaizkio jolasak eta ekintzak eta hor hartzen du garrantzia praktika psikomotrizitateak.

Egia da geroago ere haurrak arazoe-kin aurkitzen direla: jarrera arazoak, ikasteko arazoak... Berriro adierazpen emozionalaren gabeziarekin egiten dugu topo. Kasu horietan praktika psikomotrizitatea erabil daiteke, baina talde txikietan soilik. Horrela, Lehen Hezkuntza osoan praktika daiteke praktika psikomotrizitatea, baina modu berezian eta talde txikietan baino ez.

7 urtetik aurrera haurra beste adierazpen modu batzuek baliatu daiteke bere garapen prozesuan: antzerkia, musika, aktibitate kolektiboa... adierazpen artistiko guztiak. Askoz ere zehatzagoak eta bideratuagoak dira. Esate baterako, ez da ahaztu behar kirol aktibitate kolektiboa funtsezkoa dela Lehen Hezkuntzan. Kasu horretan, garrantzitsua da kirola egiterakoan erabiltzen den pedagogia. Zeren kirol kolektiboa pla-

Hezitzailearen jarrera garrantzitsua da. Izatearen eta irakastearen plazerean oinarritu behar du. Pentsa zer esan nahi duen izatearen eta irakastearen plazer horrek hezitzaileen prestakuntzan; zerbait potoloa

Benetan,  
eskolan beharko  
litzatekeen iraultza  
da haurra  
ebidentzian jartzea  
bere emozioekin.  
Haurrari bere  
emozioak  
adierazten  
utzi behar zaio,  
haurra batez ere  
emozioz  
betetako gizakia  
baita

zera elkarrekin hartzeko da, ez besteak kanporatzeko. Hori da filosofia. Futboleko jokatzeko dugunean ez dugu hamaikak hamaikaren aurka jokatzeko, 22k jokatzeko dugu, denok elkarrekin. Kontzeptu hori garrantzitsua da.

**Bada, hori gizarte osoari esplikatu beharko litzaioke.**

Noski, eskola gizartearen isla baino ez da. Are gehiago, pedagogia gizartearen isla dela esango nuke.

**Praktika psikomotritateko gela modu batera jokatzeko da, baina hortik at, beste gela, beste modu batera. Nola ikusten duzu koherentzia falta hori?**


Praktika psikomotritatearen kontestua, maila pedagogiko hezitzailean, Haur Hezkuntza osora hedatu behar da. Zeren heldutasun ibilbidea ez baitago praktika psikomotritateari atxikituta soilik. Haur eskola guztietan aintzat hartu beharko litzatekeen heldutasun ibilbidea da. Gorputzetik hizkuntzara, ekintzatik sinbolizaziora, esentrikoa izaten laguntzeko gaitasuna, hori da heldutasun ibilbidea.

Edozein modutan, eskola batean ez da beharrezkoa metodo bat, baizik eta hezitzaileak hartu behar duen bideari norabide bat ematea. Garrantzitsuagoa da jarrerak lantzea metodoak baino.

Egia da praktikan zailtasun handiak daudela praktika psikomotritatearen eta gela arrunteko praktika pedagogikoaren artean koherentzia lortzeko. Psikomotritate ikastaroa egiten duten hezitzaileek koherentziari buruzko mintegi bat egin ohi dute. Bertan, bi urteko prestakuntzan ikasitakoa eskolan praktikan ezartzeko garaian zerekin topatu diren komentatzen dute. Eta denek aipatzen dute lankideekin eta instituzioarekin nolako zailtasunak dituzten. Ikastaroa egin ondoren, haurrak beste modu batera ikusten dituztela esaten dute, beste modu batera lan egiten saiatzen dira, baina hortik aurrera ezin dute ezer egin.

Zentro askok praktika psikomotritatearen eskaintza egiten dute matrikulak erakartzeko, baina gero barruan ez dago koherentziarik.

Zenbait kasutan eskolaren edo beste instituzioen presioak ere oztopatu egiten du, baina presio handiena filosofia aldaketa da. Zuk ideia bat eduki dezakezu eta araudi bat egin. Baina gero, filosofia soziala dago, ez instituzionala soilik, ez gobernuarena soilik, baizik eta gizartearena. "Egin, egin, egin" esaten du gizarteak eta ez dago haurraren ulerkuntza eta entzuketaren filosofiarik. Beraz, filosofiak huts egiten duenez, beste guztiak ere huts egiten du. Zeren nik ez badut zerbaitetan sines-





ten, ez du elementurik eraikitzen hori egiteko.

**Psikomotrizitate ikastaroa egiten dute hezitzaileek haurra beste modu batera ikusten dutela aipatu duzu. Zer dute ikastaro horiek?**

Prestakuntza pertsonala. Prestakuntza hori lantzen da eta eraldatuta ateratzen dira. "Profesional bezala, jada beste leku batean nago" esan ohi dute. Haurrari begiratzeko modua aldatzen zaie.

Irakasle eskoletan prestakuntza pertsonala ez dago diseinu kurrikularraren sartuta, ezta pentsatuta ere. Ez dut esaten zer nolako prestakuntza pertsonala egin behar den, horrek ez dio axola, baina gutxienez planteatu egin behar da, eta egun egon behar duenik ere ez da planteatzen. Hori akats handia da.

Planteatzen dugun hori ez da utopikoa. Irakasten duten pertsonen eraldaketa bat eskatzen du eta hezitzaileen zatzerik den garrantzitsua definitzea.

**Etorkizunera begira, zein dira psikomotrizitatearen ikerketa ildoak?**

Ikerketa norabide batean baino gehiagotan doa. Batetik, praktika psikomotrizitateak haurrari buruzko ikerketa bat irekitzen da: zer den haurra. Beste modu batera esanda, haurraren garapen psikologikoaren ulermena gorputzaren eta ekintzaren bitartez. Gertaera horrek haurrari eta hezitzaileari haurraren sozializazioaren bilaketa

eta ikerketa irekitzen dizkie.

Izan ere, niretzat eskolak haurra hiritar bezala prestatu behar du. Aldi berean, funtsezko aktibitate kognitiboak ere prestatzen dizkio, ahaztu behar ez direnak, noski.

Norabide berean doan beste ikerketa ildo bat eta profesionalen prestakuntzan asko aipatzen ez dena hezitzailearen jarrera da. Izatearen eta irakastearen plazerean oinarritu behar du. Pentsa zer esan nahi duen izatearen eta irakastearen plazer horrek hezitzaileen prestakuntzan; zerbait potoloa.

Zeren gaur egun irakasle edozein izan daitekeela pentsatzen da. Edukiak baldin baditu eta buru argia, irakasle izan daiteke. Eta ez. Beharrezkoa da prestakuntza pertsonala izatea, ezinbestekoa da.

Gaur egun irakasle edozein izan daitekeela pentsatzen da. Edukiak baldin baditu eta buru argia, irakasle izan daiteke.

Eta ez.

Beharrezkoa da prestakuntza pertsonala izatea, ezinbestekoa da



## Inaxitoren ametsak bertso antzerkia



Bertso antzerkiaren formula erreakzio kimiko hau sortu nahian asmatu dute: 6 urtetik 12ra bitarteko haurari belarri ertzean bertso bat jartzea eta gozatzea, hitza jolas dibertigarri gisa kateatzea. Ekainetik hona eskaini dituzten emanaldietan zientifikoki frogatu dute umorearen ukendu eraginkorra dela bertso antzerkia. Bertsoa oso dosi txikian du, hitzezko elkarriketak dira nagusi.

Agertokian hiru bertsolarik hamaika pertsonaiaren larriuan jarduten dute: Xabier Sukia, Ibai Escain eta Gorka Toloxa dira bertsolari-antzezleak. Ordubetean munduan barrera bidaiatzera eramaten dute ikuslea.

Ekainean estreinatu zuten **Inaxitoren Ametsak** bertso antzerkia, eta ordutik 20 herritako areto edo eskoletan eskaini dute emanaldia. Hiru bertsolari gazteen ideia izan zen ikuskizuna. Hirurak ere antzerkizaleak dira, parte hartu izan dutenak herri mailako antzezlanetan. Xabier Sukiaz, Ibai Esoainez eta Gorka Toloxaz ari gara. Gidoia ere euren egin zuten, Joxe Luis Urdangarin bertsolariaren laguntzarekin. Gero, ordea, testua agertoki gainera eramaten

asmatu behar; antzezpena zaintzen Ixabel Agirresarobek lagundu die. Musika, berriz, Oiartzungo Musika Txokorari esker lortu dute, hainbat kontinentetako musika hautatu beharra izan baitute. Horretan Juan Mari Beltran eta Iñaki Eguren musikariek lagundu diete. Azpiegitura jartzeaz eta kontaktuak egiteaz LANKU zerbitzua arduratu da. LANKU Bertsozale Elkarteko zerbitzua da, bai bertsolariak kontaktatzeko eta bai formatu bereziko saio hauek eskaintzeko lana egiten duena.

### Bertsoa haurrentzat erakargarri

Zaila da bertso saio arruntekin haurrengana iristea. Saiotan gaiak eta bertsoak entzule helduari zuzenduta daude eta hori guztia hieroglifiko errimatu bat soilik izan daiteke txikiarentzat. *"Mahoma ez badoa mendira, mendia doa Mahomagana"*, horixe bertso an-

tzarki honen filosofia. Bertsoa eramatea haurrengana, eurentzat interesgarri diren gaiei buruz jarduteko, euren erabiltzen duten hizkeran eta euren ulertzeko moduko arazoiekin.

Ez dute bertso betekadarik sortu nahi, ordea. Askorentzat bertsoak entzuten dituen lehen aldia izango denez, gozatzeko adinako dosi txikian sartu dituzte bertsoak. Haurrentzat ezagunak izan daitezkeen doinuak hautatu dituzte, eta puntuak oso bisualak dira, mugimenduaren bidez laguntzen dituztenak, istantean barneratzeko. Euskaraz ulertzeko zailtasunak dituztenentzat ere ez da zaila haria jarraitzea, ekintzak laguntzen baitio hitzari.

### Ametsetan munduan barrera

Inaxito lo seko gelditu da geografiko liburuaren aurrean. Ametsetan,



munduko mapan irakurtzen zituen herrialdeetara egingo du bidaia. Kontinente bakoitzean xelebrequeria bat gertatuko zaio, eta bertako pertsonaia tipikoren bat ezagutuko du, tarteka bertotan ere mintzatzen dena. Inaxitok haurren laguntza beharko du estatusunetik irteteko.

Bideokliparen aroko haurrak ez aspertzeko, erritmo biziko esketx laburrez osatu dute ordubeteko ikuskizuna. Formatua oso bisuala da. Agertokian elementu berriak azaltzen dira aldiro. Ekintza asko dago, eta gehiegikeriak begi-zabalik edukiko du jendea. Umorea egoeretan topatu dute, baina baita pertsonaia bakoitzaren hizkeran ere. Ikuslea ikuskizunaren parte izan dadin saiatu dira, galdera zuzenak eginez edo pertsonaiak oholztatik jaisi eta entzule artean murgilduz. Une batean areto osoa "Taichi" egiten jarriko dute, eta haurrek hara zer intenzio jartzen duten "hartzaren", "sugearen" edo "otarrainaren" mugimenduak zehatz egiteko.

### Inprobisazioa

Antzerkian ez dute bat-bateko bertsoak botatzen, jarritako bertsoak dira denak. Baina inprobisatu beharra ere gertatu izan zaie, memoriak huts egiten duenean. Behin errimatu gabeko bertso batek ere alde egin omen zion "Inaxitori", baina haurrek ez omen zuten ezer arrarorik sumatu. Bertsolari izanda inprobisatzeko duten gaitasuna baliatu nahi izan dute agertoki gainean ere. Ez omen dira gidoiarekin itsutzen, ez dute testua hitzez hitz memorizatzen beharrik ere. Atzean badago gidoi bat, baina agertoki gainean aldiro elkarrizketak natural irteten zaizkien bezala egiten dituzte, gaur modu batera esango dute eta bihar beste hitz batzuekin. Horretan ere eragina du zein herritan ari diren antzeztzen, zer ikusle mota duten.

Bestetik, entzuleak haurrak izateak ere behartu egiten omen ditu inprobisatzera. Haurrek erantzun egiten dutelako, eta zer erantzungo duten beti ezin duzulako aurreikusitako. Ibai Esoainek badaki ongi zer den haurren erreakzioei boteprontoan erantzun beharra. Pasar-

te jakin batek trantze bat baino gehiago ekarri dizkio. "Zein dira mundu guztira iristen diren hiru gauza?" galdetu, eta behin haur batek oihuka: "Nik badakit! Eguzkia!" erantzun. Esoain triapak jaten barrutik, "Ederra egin diagu, orduan lau gauza dituk jada!". Beste behin, "horietako gauza bat Coca-Cola da" esanez jarraitu zuen Esoainek, eta orduantxe akabo: haur batek hamar minutuko azalpenekin erantzun omen zion, esanez halako herritarra Coca-Cola ezberdin bat bidaltzen dutela, gasik gabea, txartela kolore gorrikoa ere ez duena eta zapore txarrekoa, han pobreak direlako. Esoainek nolabait erantzun behar, "Ez dakit, ni behin ere ez naiz han izan...".

Inprobisazioarekin eta antzerkiarekin gozatu egiten dute hiru artistek, konplizitate handia dute, ondo pasatzen dutelako egiten dute ikuskizuna. Horren adibiderik garbiena behin Orion egin zutena da: entseatzeko ari zirela, noizbait aspertu eta dibertitzeko zer egingo? Bata pinguiñoz jantzi, besteaz ezenez eta hirugarrena mexikarrez mozarrotu, eta kalera irten ziren, nor bere pertsonaian sartuta, "ea kalean

**Zaila da bertso saio arruntekin haurrengana iristea, saioetan gaiak eta bertsoak helduei zuzenduta baitaude. Antzerki hau bertsoa haurrengana eramateko sortu da.**



zergertatzen den". Topatzen zuten jendearekin mementoan atera bezala jokatzen zuten. Batzuek barre ederrak egin zituzten, beste amonaren batek kargu hartu ere bai, "Alde hemendik, haurrak izutzen ari zarete eta!" esanda. Hala zebiltzan, harik eta herritarrek Ibai Esoain ezagutu zuten arte. Ez zen hain zaila asmatzea ere. Izan ere, zenbat jende dago bere herrian mozarrotuta kalera irteteko eta festa jartzeko gai dena? •





## Saharako ikasleak Zornotzan Hizkuntzen oasia

Euskadiko familiatan bizi diren 29 ikasle saharar elkartu ziren Zornotzako aterpetxean, asteburu pasan. Haur horiek Argeliako Tinduff kanpamentutik etorriak dira Euskal Herrira, ekakuntza baten premiak edota ikasketak burutu beharrak ekarrita. Denbora daramate hementxo familiatan bizitzen, baina herri desberdinetan daudenez ez dute elkar ezagutzen, eta euren hizkuntzan mintzatzeko aukerarik ere ez dute. Zornotzako egonaldiak aberkideak ezagutzeko eta hassanierari zein euskarari lekua egiteko balio izan du. Ekimena EHIGE guraso elkarteak antolatu du, Saharako eskolentzako kanpainaren barruan.

Hizkuntza oasia zen Zornotzako aterpetxea, abenduaren 5etik 8ra hassaniera eta euskara hitz egingo zuen komunitatea osatu baitzuten. Eguneroko bizitzan hassanieraz hitz egiteko aukerarik ia batere ez dute haurrok. Euskarari dagokionez, denetik dago: batzuek ulertu egiten dute, beste batzuek hitz egin ere bai aise. Izan ere, haurron artean badira duela 8 hilabete heldu zirenak eta badira 4 urte bertan bizitzen daramatzatenak. Batzuk A ereduan dabiltza, besteak euskara hutseko ereduan. Dena dela, haur denek ageri dute euskararekiko jarrera ona, eta ikasteko abildade izugarria omen dute, gainera. Hala zion begirale batek, Alex Hernandezek: "Hizkuntza hartzeko duten trebetasuna da gehien harritu nauena. Euskaraz maila desberdinak ikus dai-



Alex HERNANDEZ

*tezke euren artean, baina mailarik baxuena ere oso altua da".*

Bizkaiera dotorean liluratu gaitu begi-bixi batek. Lau urte daramatza Euskal Herrian eta gaur gehien menperatzen duen hizkuntza euskara du. Hassaniera ahaztu omen zaio. Lagun batek azkar aurkitu dio esplikazioa: "Izan

*ere, hainbeste kontzentratu da euskarari, bere hizkuntza ere ahaztu egin zaiola!". Hassaniera ulertu egiten du oraindik eta Saharara itzultzen denean azkar asko hartuko du berriz hizketarako gaitasuna. Baina lanak biharko uztea ez da komeni. Tinduffetik etorritako haurrak elkartzeko gunea bilakatu dute Zornotzako egonaldia, hassanieraz eta euskataz hitz egiteko aukeraz dezan.*

### Kultur trukea

Hiru begirale euskaldunak dira, eta Saharako begirale bi ere ekarri dituzte hassanieraz jarduteko eta arabierazko idazketan laguntzeko haurrei. Saharar begiraletako batek ezagutzen zuen lehendik Euskal Herria, 4 urte igaro baitzituen bertan, hanka sendatzera etorrita. Esperientzia hau oso ona iruditzen zaio, eta hala nabarmendu du: "Gauza gehiago egin behar ditugu haurrek euren hizkuntza eta ohiturak ahantz ez ditzaten".







Kultura eta hizkuntza arteko trukea bultzatzea nahi izan dute, begiraleengandik hasita. Alex Hernandezek argi du: *“Begiraleok ere ikastera etorri gara. Euren abestiak eta ohiturak ikasi ditugu. Gure izena arabieraz idazten ikasi dugu, eta ‘ogia’, ‘egun on’ eta egunerokohitzbatzukesaten ere bai. Haurrak ez dira ikasi behar duten bakarrak, guk ere badugu zer ikasia euren-gandik”*. Helburuak lortzeko jolasak eta eskulanak ez dira falta izan. Gutunak idatzi dituzte Saharara bidaltzeko. Gabonetako postaletan gehien idatzi duten desioa begi-bistakoa da: *“askatasuna eta bakea Sahararentzat”*. Haur bakoitzak argazki marko bat ere egin du eskuz, taldeko argazkia etxera eramateko, egindako lagun berriez akordatzeko. Gauetan diskotekak egin dituzte Saharako eta Euskal Herriko musikarekin, eta behin ohera bidalita ere ez zaie juergarik falta izan, begiraleak logelatik irten orduko. Baten batek gaua pasilloan pasa behar izan omen du, zigortuta, isilik egon ezzen seinale...

Haurrak zorutzen daude esperientziarekin, eta Euskal Herrian dauden artean halako topaketa gehiago egin nahi dituztela esan digute argi. Saharara itzultzeko gogorik ere ez zaie falta, jakina. Harrituta gelditu gara ikusita hango azken albiste guztien jakinen gainean daudela haurrok; Interneten egunero begiratzen dutela kontatu digute. Gainera, bi astean behin deitzen diete gurasoei, gutun bidez ere komunikatzen dira, eta hemengo familiarek ere arretaz jarraitzen omen dituzte irteten diren albiste denak. Haur gutxi izango da bere herriko azken orduko egoeraz hauek hainbeste dakienik.

تلاميذ البايين باسكو  
مع الصداقة  
والتضامن  
مع الأطفال  
المصريين

“Euskal Herriko ikasleentzat, elkartasunez eta maitasunez, Saharako lagunak” (irakurri nahi izanez gero, eskuinetik hasi, ados?)

### Ikasle bat, adreilu bat kanpaina

Zornotzako egonaldia “Ikasle bat, adreilu bat” kanpainaren barnean sartzen da. Kanpainaren helburua, Dajlako Lehen Hezkuntzako bost ikastetxeri laguntzeko dirua biltzea da, bai erai-kuntzak berritzeko eta baita aulkiak edo mahaiak bezalako altzariak erosi-hal izateko. EHIGEk antolatu du kanpaina, miresten baitu zer ahalegin egin duen SAEDeko gobernua hezkuntzan. Eguneko oso kaloria gutxirekin bizi den herrialde honetan, biztanleriaren %100 dago eskolatua.

Kanpainaren barruan hainbat ekimen antolatu dituzte. Hitzaldiak eskaintzen dituzte ikastetxeetan euskal ikasleak hango haurren egoeraz kontzientzia daitezten. Ikasleek euro baten truke adreilu bat erosteko aukera ere badute, proiektuaren partaide senti daitezten. Lagundu nahi duten gurasoek, 5'10 eurotan eros dezakete adreilua. Hezkuntza Sailari eta Foru Aldundiei zein Udalei ere laguntza eskatu diete. •



## Literatura bizitzeko modu bat

### Oñatiko Aozaraza ikastetxeko ikasleen esperientzia



Andoni SALAMERO

O atiko Aozaraza ikastetxeko irakaslea

#### Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz

Sarri, komunikabideetan zabaldu izan da gazteek ez dutela behar adina irakurtzen, gero eta gutxiago hartzen dutela liburu bat eskuetan. Gainera inkesta guztiak adierazten duten legera, errealitate gordina dugu: adin honetara iritsirik, irakurtzen duten gazteek gaztelan irakurtzeko joera bereganatzen dutela. Erakundeek (udalek, foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzak, eta abar), arazo horretaz kezkatuak, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko eta sustatzeko kanpainak bideratu izan dituzte; hobeto edo okerrago, ekinaldi guztiak ontzat jo behar dira, beti arazo bati aurre egiteko sortuak izan direlako; alegia, irakurtzeko zaletasunaren harra gazteen artean pizteko. Eragozpen bakarra zera litzateke: kanpainetan gastatzen den diru kopurua handia

denez, kudeatzailei zaila izan zaiela emaitza egokiak lortzea kualitatiboki eta kuantitatiboki; hau da, irakurleen zenbatekoa gehitzea kuantitatiboki, eta irakurtzen denaren kalitatea eta irakurle berriei eusteko ahaleginak eta ekinaldiak kanpaina emankorretan burutzea.

Irakurleak behar dira, ez pare bat soilik, zenbat eta gehiago hobeto. Baina, irakurleen kopurua "hazteko", alde aurretik ondo ezagutu behar dugu irakurlea: adin guztietan zer kezka dituen, gizarteak eta komunikabideek egiten dizkieten eskaintzak zein diren, ikastetxeetan irakurtzeko zaletasunari buruz ikasle-irakasleen artean egiten den lanaren nolakotasuna, arazo horri aurre egiteko sakonetik ganoraz "hezen" ote dugun/ditugun gure balizko irakurlea/ak...

Erakundeei, kudeatzaileei, kanpainari, irakurlearen nolakotasunari eta irakurtzeko zaletasuna sustatzeko egiten ditugun ahaleginei gaineratzen badiegu gizartearen balizko irakurleak eta irakurle konbentzituak hartuta dauzkaten hainbat ohitura aldrebes (liburuak ez erosteko joera, liburuak fotokopiatzeko joera makurra, hitzaldietan, ekitaldietan eta emanaldietan idazlea ezagutzeko galtzen ditugun aukerak), aurrez aurre dugun ikusmira ez da oso itxurosoa. Baina, lehen esan bezala, arazoak beti irtenbide eta hausnarketa bide izateko sortuak izan dira. Esate baterako, zenbait erakundetan -Euskal Idazleen

Elkartean, esaterako- idazlea beste gizakien artean gizaki urrun eta berezia ez dela erakusteko programa berezi bat bultzatu eta bideratu izan dute ikastetxeetan. Idazleak ordu eta erdian gutxi gorabehera burututako ekinalditxoan bere bizitzaren, obraren, literatur tankeraren, eta pasadizo eta bixikerien berri eman izan die ikasleei eta horiek, konfiantza hartuz, galderak egin idazleari. Modu dinamiko eta bizi horren bidez, idazlea hurbilgotik ezagutzeko aukera izaten dute ikasle-irakasleek ikastetxeetan.

Horrelako ekimenak oparoak gerta litezke baldin eta ikasle-irakasleek liburuaren egilearen bizitzari buruzko zertzeladak eta liburuak modu intentsiboan irakurri izan badituzte eta gelan landurikoa era aktiboan egin izan bada. Lan horrexek, behar bezala burutzeko, denbora, gogoia eta ardura eskatzen du (ikasle-irakasleen eskutik, jakina).

Lan hau hainbat beharri aurre egiteko sortu da. Batetik, irakurtzeko zaletasunaren txinparta piztu eta bere garra



areagotzeko beharrari. Bestetik, irakurtzearen ondorioz idazlearen obra, idazlea bera eta bere herria ezagutzeko premiari. Gogoan izan behar dugu idazlea inor bada, ez dela bakarrik bera delako, bere herriari eta jaio eta hazten ikusi duen inguru eta herritar horiei esker ere badela. Ondotxo azaltzen zuen hori Bitoriano Gandiagak bere *Hiru gizon bakarka* liburuan (40. or.):

**Orpo herririk gabe/ez dagogizonik**

Idazlea ezagutzea ez da nahikoa, ingurua usaintzea, behatzea, aztertzea eta Joxan Artzek bere "*Baztan*" olerkian zioenez, "*Baztan izatea*" lortu behar dugu, xede aberats hori geure ikasleengan haragiarazteko. Hori erdietsiz, ikasleek gizartearen amaraun zabalean ikuspegi kritikoa garatzen ikasiko luke eta gizarteak (herriak) proposatzen dituen ekimenetan parte-hartzaile aktibo izateko oinkadak ere urratuko lituzkete.

Abentura erakargarri honen arrakasta eta porrota gurea da, hezitzaileona. Baina, hezitzaile hitzaz aritzean zentzu zabalean ari naiz, hezitzaileak guztiok baikara ikasle bati, herritar den ikasleari, ahalmen fisikoak eta intelektualak garatzen laguntzen eta gizabidea erakusten ari garen unetik. Hezitzaileok hor dugu benetako erronka, ikasleek Batxilergoan beren autonomia sendotu behar dute eta izan ditza keten arazoak (beldurrak, lotsak ...) gainditzen lagundu behar diegu, sormenaz gero eta gehiago baliatzeko, lozorroan duten sentiberatasuna ernarazteko. Sentiberatasun hori lozorroa gotzen badugu eta behar diren baliabideak jartzen ez baditugu, zertan ari gara esaten gaurko gazteek ez dutela inongo kultur ekitalditan esku hartzen? Tiki-taikika etsipen kolpez eta ukaldika lantzen bazuen Oteizak harria, gure ekimen honetan borondate berbera erakutsi behar, emaitza antzurik lortu nahi ez badugu. Zer nahi dugu, herri bateko gazteak norbait izatea eta herri horri norbait herri deitzea ala egun, telezabor-jakiz elikatutako gazte ziztrinak izatea?

**Bazen Xherrian Xgizona.  
Xgizona Xherrian Xgizon beste-  
rik ez zen.  
Xgizonak lan egin zuen,  
ta Xgizona  
Norbait gizona bihurtu zen.  
Gaur NORBAIT da.  
ETA  
kanpoko jendeak dio,  
Xherriak Xherri iraungo zuela  
NORBAIT gizona barik,  
ta NORBAIT gizonari esker  
Xherria, NOR.BAIT herri bihur-  
tu dela,  
NORBAIT gizonagatik.**

**ETA  
gaur,  
Xherria NORBAIT herria dela  
NORBAIT gizonaren herri dela-  
kotz.**

**AHAZTU AZ  
Xherririk gabe  
NORBAIT gizona  
Xgizona besterik ez zela izango.**

**(B . Gandiaga, Hiru gizon ba-  
karka, 33. or)**

## Esperientziaren nondik norakoak

Duela bost urte "Kultur jardunak" prozesua jarri zuten abian Oñatiko Mikel Aozaraza ikastetxean. Prozesu haren xedea zera zen: ikasleek gela barruan ikasten dutenaren erabilgarritasuna egiaztatzea eta balioestea, beren autoestimua hobetuz ikasteko gogoia piztea eta areagotzea, kultur eragile aktiboak izan daitezkeela erakustea eta izan daitezen trebatzea.

Zentzu horretan, hainbat ekimen egin dituzte, eta iazko ikasturtean euskal literaturaren eta irakurtzeko zaletasunaren munduan murgildu ziren 17 urteko 36 gazte.

**"Euskal literaturaz blai. Irakurza-  
letasuna sustatuz"** izenez bataiatu zuten prozesuak hainbat fase izan zituen. Hasteko, literatur euskalkiak landu zituzten. Herriko euskaltitik abiatu

ziren, hots, oñatiarrek erabiltzen zuten azpieuskalkia nolakoa zen aztertzeari ekin zioten. Horrela, ikasleek beraiek hitz egiten zuten hizkera ikertu zuten. Ondoren, literatur euskalkiak behatzen hasi ziren, alegia, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera. Euskalki bakoitzaren ezaugarriak ikusiz, Euskaltzaindiak argitaratutako hizkuntza atlasetik Euskal Herriko hainbat herri-tako testuak aztertzen aritu ziren. Lan honen ostean, ondorio bat atera zuten ikasleek: hizkuntza bera hitz egin arren, hainbat adar dituela, (euskalkiak) eta baita adarñoak ere (azpieuskalkiak). Beraz, Axularrek zioena frogatu ahal izan zuten; hau da, mendez mende aldaketak gertatu arren, hizkuntzak dituen euskalkietan hitz horiek bizi-bizirik dira utela:



“Zeren anhitz moldez ea dife-  
rentki mintzatzten baitira euskal  
herrian. (...) Batak erraiten du be-  
hatzea eta bertzeak so egitea. Ba-  
tak aserretzea, bertzeak samur-  
tzea. Batak ilkitzea, bertzeak ialgi-  
tea”. (Axular, Gero, 16. or.)

Bigarren ebaluazioan testu motak landu zituzten. Ikastetxean bertan sor-  
tutako testuak eta beraiek sortzen zituz-  
tenak hainbat helbururekin egindako-  
ak zirela ohartu ziren. Andoni Salamero  
irakasleak halaxe baieztatzen du: “Ad-  
ministratioko eta kazetaritzako hain-  
bat testu aztertu genituen. Eta testuak  
iruzkintzen ere jardun ginen, eta ez  
azaletik, sakonean eta dinamikoki  
baizik. Esate baterako, etxean eginda-  
ko iruzkinak ikasle batek gidatzen zi-  
tuen gelan, eta era berean, beste bik  
hark izandako hutsuneak edo gabe-  
ziak argitzen zituzten. Gelan geunden  
besteok hiru ikasleek egindako lana bi-  
ribiltzen genuen bakoitzak ekarpenak  
eginez”. Modu horretan, arreta ikasle-  
engan zentratzen zen eta irakaslearen  
presentzia gutxitu egiten zen, behatzai-  
le bihurtuz eta esaten ziren gauza ego-  
kiak eta desegokiak idatziz.

“Eta era berean, XVI. mendetik ha-  
sita XXI. mendera arte gure euskara-  
ren euskalkiak, lore preziatu horiek,  
gorde izan dituzten lorezainak ere  
egon zirela eta badirela konturatu gi-  
nen. Garai horietan hitz lauz idatzi  
izan duten hainbat eta hainbat idazle-  
ri buruz ari naiz. Idazle horiek eginda-  
ko lanari esker, ohartu ginen euskal-  
kiak doitu, itxuratu eta aberastu egin  
zirela” gaineratzen du Andonik.

Hirugarren ebaluazioan aurreko bi  
ebaluazioetan ikasitakoa lan batean  
bildu zuten. Beste modu batera esanda,  
teorian ikasitakoa praktikan jarri zuten.  
Lauko taldetan banaturik, talde bakoit-  
zak gustuko zuen idazle bat aukeratu  
zuen eta bere hainbat liburu aukeratu  
ere bai irakurtzeko. Aukeratutako idaz-  
leen artean zeuden Andoni Egaña, Jose  
Mari Velez Mendizabal, Ramon Saizar-  
bitoria, Juan Martin Elexpuru, Jon Sara-  
sua, Joxean Sagastizabal, Juan Luis Za-  
bala eta Fernando Morillo. Horien in-  
guruan egindako lanak hainbat zati  
izan zituen:

- Idazlearen bibliografia aztertu zu-  
ten Interneten eta entziklopedietan eta  
liburuak irakurri eta aztertu ere bai.

- Jasotako informazioaz eta irakurri-  
takoaz baliatuz, elkarrizketa prestatu  
zuten eta baita egin ere idazlearekin au-  
rez geldituta. Elkarrizketa guztiak zin-  
taz edo bideoz grabatuta gelditu ziren.

- Elkarrizketa egunean idazlearen  
herria bisitatu zuten. Aldez aurretik  
herriari buruzko informazioa jaso  
zuten Interneten, entziklopedietan,  
udaletxean, herriko erakundeetan,  
eta abar. Horrekin batera, herriari bu-  
ruzko erreportaia bat egiteko datuak  
eta bitxikeriak jaso behar zituzten, he-  
rrira bertara joan zirela aprobetxatuz.  
Elkarrizketatuari bere herriko gustu-  
ko txokoei buruz ere galdetu zioten  
eta horietara ere hurbildu ziren. Nos-  
ki, desberdina da informazio bulego-  
etatik jasotako datuekin bisitatzea he-  
rria edota idazlearen eta bere liburu-  
en erreferentziak gogoan izanik eza-  
gutzea.

- Herriaren inguruko gida bat egin  
zuten.

- Lanari buruzko albistea idatzi zuten.

- Lana gainerako ikasleen aurrean  
aurkeztu zuten.

- Ondoren idazleen herrietara joate-  
ko txangoa prestatu zuten eta zehazki hi-  
ru herrietara joan ziren: Azkoitira, Zarau-  
tzera eta Donostiara. Juan Luis Zabalare-  
kin, Andoni Egaña eta Ramon Saizarbito-  
ria landu zituzten, hurrenez hurren.

- Txangoa egin ondoren, egunaren  
inguruko bizipenak, sentipenak eta es-  
perientzia txosten batean bildu zituzten.

### Zer lortu zuten esperientzia horrekin?

Lan horrekin bi gauza lortu zituztela  
baieztatu digu irakasleak. Bata euskara  
kontzienteki, ahoz zein idatziz, erabil-  
tzea harreman guztietan (erakunde-  
kin, idazleekin, taldekideekin...), eta  
ondorioz, bizi eta biziaraztea. Eta bes-  
tea, idazlearen lanak irakurri, jaio eta  
bizi izan zuena ezagutzea eta idazlea-  
ren beraren izaera hurbiletik aztertzea.

Nolanahi ere, helburu nagusi bi ho-  
riez gain, ikasleek beste hainbat gauza  
ikasi zituzten. Esate baterako, erakun-  
de administratiboekin harremanetan  
jarriz, egin beharreko eskaerak bidera-  
tzen ikasi zuten, hizkuntza administra-  
tiboaren eta literarioaren desberdinta-  
sunak gogoan izanez. Era berean, ka-  
lean entzungo dituzten euskalkietan  
errepairatzen eta hizkuntza beraren zati  
direla jakinik estimatzen eta preziazten  
ere ikasi zuten. Idazleari dagokionez,  
haren jaioterria eta gustuko txokoak  
ezagutzerakoan egungo giroa eta idaz-  
leak bizi izan zuen garaia aztertu zituz-  
ten. Txokoak, pertsonekin bizitako  
uneak, ametsak eta sentimenduak,  
idazten ari garen liburu baten zati direla  
edo lehen beste batzuentzat hala izan  
zirela jabetu ziren. Azken finean, libu-  
ruek eskaintzen dizkiguten leiho ani-  
tzetan bezala, guk ere geure mundu  
propioak sortzen ditugula ikasi zuten,  
leiho horiek norberak irekiz, barruko  
munduak gozatuz eta ireki dituzten  
beste hainbat pertsonarekin esperien-  
tzia aberats horiek partekatuz. •



# kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Hezkuntza sistemen trukea: Euskal Herria eta jatorrizko herriak



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

Mundua Euskal Kulturaren hainbat etorkinen elkarte eta euskal kulturaren nahiz hezkuntzaren eragilek elkarlanean gartzatzen ari diren ekimena da. Euskal kulturaren normalizazioaren oinarrian, kultura aniztasunaren elkarbizitza lortzea da ekimen honen helburua. Horretan, lehen pausoak 2002. urtean eman ziren, etorkinen kolektiboen eta euskal kultura zein hezkuntza eragileen arteko elkar hurbilketarako eta ezagutzarako aukera eman zuten jardunak gauzatu. Horietatik hainbat ondorio eta

erronka zehatz atera ziren. Hain zuzen ere, 2002ko jardunalditik ateratako ondorioen emaitza da 2003ko azaroaren 29an Gasteizko Europa Jauregian ospatu zen topaketa. Lehen pauso gisa, topaketa honetan, hezkuntza esparruan kokaturik, Euskal Herriko, Kolonbiako, Ekuadorreko eta Marokoko hezkuntza sistemen trukea egin da.

Topaketak bi saio nagusi izan zituen: goizekoa eta arratsaldekoa. Goizean, aipaturiko herrialdeen hezkuntza sistemen trukea egin zen eta baita kultura nahiz hizkuntza aniztasuna lantzen dituzten hiru esperientzia aurkeztu ere: Euskal Herrian gauzatzen ari diren bi eta Brasilgo beste bat. Arratsaldetan, topaketari ikuspegi praktikoa eman zitzaion. Horretarako, hiru lantegi burutu ziren: "Unitate didaktikoen azterketa eta horien egokitzapenari buruzko planteamenduak", "Sentsibilizazio eta matrikulazio kanpaina bateratua egiteko planteamenduak" eta "Sentsibilizazio jarduera baten sorrera eskolaren eremurako". Bukaeran, lantegi bakoitzetik ateratako ondorioak eta aurrera begira egin beharrekoak mahai gainean jarri ziren.

### Hango eta hemengo hezkuntza sistematik ezagutzuz

Goizean hezkuntza sistemen aurkezpenei eta horien azalpen saioei egin zitzaizen leku.

Euskal Herriko hezkuntza esparruko ordezkari bezala Endika Rodriguez euskal hezkuntza esparruko adituak eta STEE-EILAS sindikatuko batzorde nazionaleko kideak hitz egin zuen. Endikak bere jarduna zazpi ataletan banatu zuen: Euskal Herriko hezkuntza sistema kokatu; euskal hezkuntza sisteman parte hartzen duten hizkuntzak eta horien balioa komunitate bakoitzean (EAEn, Nafarroan eta Iparraldean); hezkidetzak; ikasgelako ohiturak, dinamikak...; zein ikasgai lehenesten dira?; hezkuntza komunitatea nork osatzen dute?; eta bukatzeko, aisialdia. Saioa gure hezkuntza sistema ezagutzen ez zuten etorkinei begira aurkeztu zuen.

Kolonbiako hezkuntza esparruko ordezkari bezala Daniel Ruiz Ortiz Kolonbiako Unibertsitate Librean Hezkuntza Zientzietan lizentziatua etorri zen. Danielek hainbat gai ukitu eta azaldu zituen: Kolonbiako hezkuntzaren helburuak, hezkuntza formala, hezkuntza formalaren mailak, hango hezkuntza sistemen egitura, derrigorrezko eta oinarrizko arloak, eskola gobernua eta aisia eta astialdiaren garran-

tzia Kolonbiako hezkuntza sisteman... Bere esanetan, Kolonbiako hezkuntza sisteman kultura eta hizkuntza aniztasunaren lanketak, giza balioek, ingurumenaren lanketak eta arte plastikoek berebiziko garrantzia dute. Horrek lotura zuzena dauka Kolonbiak bizi duen errealitate kultural, ekonomiko eta politikoarekin. Hezkuntza publikoa Lehen Hezkuntzara arte baino ez da ematen, horrek biztanleriaren gehiengoari, arrazoi ekonomikoak bide, ikasten jarraitzea galarazten diolarik. Indigenen kulturak eta hizkuntzek hezkuntzan duten lekuaren inguruan ere aritu zen. Gaur egun, indigenek beraien hezkuntza sistema propioa dute, bertako irakasleak indigenak direlarik.

Ostean, Marokoko hezkuntza esparruko ordezkari Maha Aalla aritu zen. Marokoko hezkuntza esparruko aditua da eta Bizkaiko hainbat eskolatan bitartekari ere bai haur marokiarrekin. Berak, lehendabizi, Marokoko hezkuntza sistemaren historia azaldu zuen, bukaeran, gaur egungora iristeko. Gaur egun, Marokon, derrigorrezko hezkuntza 7 urtetik 13ra mugatzen da. Neskek, oro har, adin horrekin uzten dituzte ikasketak eta mutilek, etxean dirua baldin badago, Bigarren Hezkuntza egiten jarraitzen dute. Hala ere, desberdintasun handiak daude Marokoko lurralde batetik bestera haurren eskolatzeko mailari begira, beti, kaltetuenak Saharako haurrak direlarik. Hezkuntza sistemako hizkuntza ofiziala



arabiar klasikoa da. Bigarren hizkuntza bezala, 8 urtetik aurrera frantsesa erakusten da, eta 15-16 urte ingururekin, hirugarren hizkuntza, ingelesa. Ikasgai garrantzitsuenak historia, geografia, matematika, etika, hezkuntza nazionala, arabiar hizkuntza eta islamiar erlijioa dira. Hezkuntza fisikoak eta aisialdiak ez dute garrantzirik. Irakaskuntzaren didaktika memoriaren lanketan baino ez da oinarritzen; horregatik, haur marokoiari nekeza egiten zaie talde dinamikan lan egitea, ikasgelan parte hartzea, logikazko ariketak egitea... Gurasoen parte-hartzea ikastetxean hutsaren hurrengoa da. Bereber hizkuntzari dagokionez, aurtan, lehen aldiz, bigarren hizkuntza bezala sartu dute hezkuntza sisteman, baina gehiengo bereber hizkuntzaz mintzo den eskualdeetan soilik.

Bukatzeko, Franss Conde Hinojosa Ekuadorreko Unibertsitate zentrolean Arte plastikoetan lizentziatuak, idazleak eta poetak hartu zuen hitza. Franssek Ekuadorreko hezkuntza sistemaren inguruan hitz egin zuen, bere esperientzia propioan oinarrituz.

### Esperientzia zehatzak

Goizaren bigarren eta azken saioan trukeekin jarraitzeko, batetik, Euskal Herrian aurrera eramaten ari diren bi proiektu aurkeztu ziren: Donostiako Intxaurren ikastolaren esperientzia: **“Balioetan hezteia”** eta Zumarraga-Urretxuko esperientzia: **“Etorकिनentzat euskarazko errefortzu saioak”**; eta bestetik, **“Brasil: kultur aniztasuna irakatsi ala aniztasunean bizi?”** esperientzia.

Intxaurren ikastolaren esperientzia, **“Balioetan hezteia”**, Jon Ibarzabal Ondarrak eta Maite Berzosa Urretabizkaiak aurkeztu zuten. Proiektua elkartasuna eta garapenerako hezkuntza lantzeko da. Sentsibilizazio lana egin nahi da hezkuntza komunitate osoarekin. Bost helburu nagusi dituzte:

1. Garapenaren aldeko hezkuntza gauzatzea eta ikastetxeko hezkuntza proiektuaren barruan aipatzen diren helburuetan eta edukietan zehaztea.

## Etorkinen kolektiboan eta euskal hezkuntzako eragileen arteko topaketatik elkarrekin aurrera eramateko ekimenak, ideiak eta proposamenak atera dira

2. Adierazpen askatasunean, arduaren bereganatzean, ezadostasunak adosteko bide bezala elkarriketa erabiltzean, injustizi egoerak kritikatzeko, eta giza taldeen artean sortzen den aniztasunaren aurrean errespetuzko jarraitzean bultzatzean oinarritutako hezkuntza garatzea.

3. Kulturen arteko harremanak sendotzea eta aberastea, eta harreman horien lanketaren bidez hainbat herrialdeko egoerak ezagutzea, aztertzea eta elkartasuna bultzatzea.

4. Belaunaldien arteko harremanak garatzea, desberdintasunak eta errespetua landuz.

5. Sentsibilizazio prozesuan era sistematikoa eta aktibo batez aurrerapausoak ematea gurasoak, irakasleak eta auzokideak inplikatzeko. Proiektu honen hartzailak Intxaurren ikastolako irakasleak, irakasleak zein gurasoak, senidetuta dauden eskolako kideak eta auzokideak dira.

Zumarraga-Urretxuko esperientzia, **“Etorकिनentzat euskarazko errefortzu saioak”**, aisialdian aditu eta egitasmo honen koordinatzaile Nerea Alustizak aurkeztu zuen. 2003ko urtariletik ekainera eta 2003ko urritik 2004ko maiatzera bitartean udalerririk horietan haur etorkinen integrazio kulturalari nahiz linguistikoari begira aisialdi proiektu bat jarri zen martxan. Aisialdi proiektu horretan 30 bat haur etorkinek



parte hartzen dute hiru taldeetan banaturik: 6-8 urte bitarteko haurrak; 9-11 urte bitartekoak; eta 12-15 urte bitartekoak (16 urtetik gorako haurrak Urretxuko udal euskaltegira joaten dira). Proiektu horrek hiru xede nagusi ditu: Euskal Herria ezagutzera; euskal kulturaren hurbilketa egitea; eta haur nahiz guraso etorkinek euskara eta euskal kulturarekiko jarrera positiboa izan dezaten lortzea. Aisialdi proiektu hori lantegi, jolas, bideo... bidez gauzatzen da, ahozko erabilera sustatu nahi delarik.

Jarraian Diana Ramos de Oliveirak "Kultur aniztasuna irakatsi ala aniztasunean bizi?" NBEk bultzatutako eta Brasilgo Gobernuak sustatutako esperientzia azaldu zuen. Brasilen gaur egun 210 etnia indigena baino gehiago bizi dira elkarrekin. Bakoitzak bere nortasuna du, aniztasun soziokultural aberatsa sortzen duelarik horrek. Era berean, afrikarren ondorengoek osatutako biztanleria itzela dago, bakoitza bere kultura eta erlijio tradizioarekin. Errealitate hori kontuan izanda, proiektu honekin, bai ikastetxeetan, bai aisialdi taldeetan, kultura eta hizkuntza aniztasuna dantza, abesti, kirol... bidez lantzen dute haurrekin. Izan ere, proiektu honen zuzendarien aburuz, kultur aniztasunaren haurrean jarrera positiboa izateko, batez ere, bizi eta gozatu egin behar da aniztasunean.

**Proposamen ugari atera dira**  
Arratsaldeko saioa "Hezkuntzaren esparruan: erronkak, proposamenak eta planteamenduak" izendatu zen. Bertan hiru lan talde egin ziren:

1.- Unitate didaktikoen azterketa

eta horien egokitzapenari buruzko planteamenduak.

2.- Sentsibilizazio eta matrikulazio kanpaina bateratua egiteko planteamendua.

3.- Sentsibilizazio jarduera baten sorrera eskolaren eremurako.

Bukaeran, lan taldeetan egindako proposamenen aurkezpena eta beraien arteko osagarritasunaren inguruan hitz egin zen.

1. Unitate didaktikoen azterketa eta horien egokitzapenari buruzko planteamenduak

Kulturen arteko elkarbizitza lantzeko material erabilgarria nonahi bada goela nabarmendu zen tailer honetan eta ez dela lehentasunezkoa material berria sortzea, baizik eta dagoena era dispersatu batean biltzea eta gurera egokitzea.

Gai horien inguruan irakasleei formazioa ematearen eta areagotzearen premia ere nabarmendu zen.

Hortaz, sortua dagoen materiala **bildu**, bildutakoa **sailkatu** eta ikastetxe bakoitzeko errealitatera **egokitu** beharra ikusi zen.

Sor daitezkeen lanak eta ekimenak lehendik martxan dauden xede berberetako egitasmoetan txertatu beharko lirakeela esan zuten bildutakoek; hau da, **hik hasi** aldizkariko eta Ulibarri proiektuko dinamikan txertatzea proposatu zuten.

2. Sentsibilizazio eta matrikulazio kanpaina bateratua egiteko planteamendua

Lan talde honen zio nagusia etorki-

nei zuzendutako matrikulazio kanpaina gorpuztuko duen lan taldea eratzea izan zen. Bertatik, besteak beste, ondorengo ondorioak eta proposamenak atera ziren:

- Matrikulazio kanpaina etorkinen hurren matrikulazio joeretan kokatu behar da, A ereduaren matrikulatzeko joeran, hain zuzen ere.

- Eraginkorra izan dadin, baditu data jakin batzuk: otsaila eta martxoa.

- Kanpaina honi begira, ikusten diren beharrak, batez ere, ondorengo hauek dira: 1. Etorkinentzako ezezaguna den informazio bat bideratzeko premia (hezkuntza ereduaren inguruan batik batik). 2. Zeregin honetan etorkinen elkarrekin elkarlanean aritzeko beharra, jasotzaileekiko komunikazio emankorra lortzeko. 3. Ahalegin honetan, eskola bakoitzeko hezkuntza komunitatea osatzen duten partaide guztien inplikazioaren beharra.

3. Sentsibilizazio jarduera baten sorrera eskolaren eremurako

Tailer honetan atera ziren ondorioak eta aurrera begira egin beharrekoak, besteak beste, ondorengo hauek dira:

- Eskolaren eremuan dauden kultura anitzen ezagutza eza handia da; hezkuntza komunitateko eragileen artean, elkarlanean aritzeko kontzientziarik ez dago; heterogeneotasunaren garrantzia lantzeko ez dago ezer;... Errealitate hori aldatzeko kanpaina bat antolatzea proposatu zuten.

- Elkarren arteko ezagutza ezaren oinarrian, elkarbizitzarako zubiak eraiki behar dira, elkarrekiko informazioan eta motibazioan oinarrituak.

- Ikastetxeko Proiektu Kurrikularren barruan, aipaturiko alderdiak sartu beharko lirakeke.

- Etorkinei zuzendutako harrera plan egokirik ez dago. Ondorioz, tokian tokiko harrera planak egitea proposatu zen.

- Alderdi horiek lantzeko beharrezkoak diren giza balabideen eta materialen gabezia dago. •

**Oharra:** Topaketa honen inguruko informazio gehiago nahi duenak, *dei dezala Joxemi Zumalabe Fundaziora: 943 275 561*

## Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen  
HITZALDIAK

Non: BRUSELA  
Noiz: 2004ko maiatzaren 27tik 28ra  
Informazioa:  
bilingbr@vub.ac.be

**Aprendizaje de las Lenguas**  
Non: CASTELLON  
Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra  
Informazioa:  
www.taaal.uji.es

\\ II. Mercator International Symposium:  
Non: TARRAGONA  
Noiz: 2004ko otsailaren 27tik 28ra  
Informazioa:  
mercator@ciemen.org

\\ Second Symposium on intercultural, cognitive and social pragmatics  
Non: SEVILLA  
Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra  
Informazioa:  
mpadilla@siff.us.es

\\ 7th International Conference of the Association for Language Awareness  
Non: LLEIDA  
Noiz: 2004ko uztailaren 19tik 21era  
Informazioa:  
ala2004@dal.udl.es

\\ Language, Attitudes and Education in Multilingual cities

\\ I. Congreso Internacional TIC y Autonomías Aplicadas al

## Irakurleen txokoa

**Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.**

**\*\* Ingeleseko irakaslea naiz Bilboko ikastetxe batean. Nire gelan bi haur etorkin daude, 12 eta 13 urtekoak, bata Marokokoa eta bestea Senegalekoa. Bietako inork ez daki ezeuskaraz eta ez gaztelaniaz-nahiz eta azken hori pixka bat ulertu. Haur horiek ez dute sekula ingelesa ikasi. Beste haurrek maila polita dute ingelesean, baina etorkin horiek ez dakite ezer. Azalpenak emateko ere ez dut hizkuntza komunik haur etorkinekin. Kasu honetarako, haur horiei ingelesa irakasteko, ba al dago material didaktikorik?**

JONE: erantzuna aldizkarira bidali, mesedez.

**\*\* A ereduan ematen ditut eskolak. Gure ikastetxean etorkin asko daude, gehiengoa, egia esan. Gehienak hego-amerikarrak dira. Hizkuntzarekin baino. ikasleek eta irakasleek etorkinekiko duten jarrerarekin nago kezkatuta. Ba al dago jarrerak lantzeko edota hizkuntza eta kultura aniztasuna lantzeko material didaktikorik? (bai ikasleekin eta bai irakasleekin lantzeko).**

MARIJOSE: erantzuna aldizkarira bidali, mesedez. Mila esker.

**\*\* Euskal Herriko berritzeguneetan, ikastetxeetan, euskaltegietan eta abarretan haur etorkinen integrazio linguistiko/kulturalari begira dauden material didaktikoen eta jolasen zerrenda bat egin nahi da, denok jakin dezagun Euskal Herrian zer dagoen jada egina eta zer ez.**

**Zuk material didaktikorik baldin baduzu, mesedez, jarri nirekin harremanetan (itziamayo@msn.com), esanez zer duzun eta zer euskara mailako haur etorkinentzat den. PARTE HAR EZAZUE, DENON HOBERAKO DA ETA!**

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak badituzu, idatziezaguzu bi helbide hauek batera: [itziamayo@msn.com](mailto:itziamayo@msn.com) edo [aldizkaria@hikhasi.com](mailto:aldizkaria@hikhasi.com) Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaituzte!

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak urtarrila

# Berriak

## Aisia biziz aldizkari berria

Urte berri  
txarri belarri  
daukanak eztaukanari  
nik eztaukat eta niri ekarri!

Bada horixe, urte berriak ez geneukan gauza bat ekarri digu: Aisia biziz aldizkaria. Negu gorrian ezagutuko du kalea, baina kolorez biziz eta indarrez ailegatuiko da gure eskuetara. Aisialdiaren inguruko gaiak jorratuko dituen euskarazko hiru hilabetekari berriak bere orrialdeak aurrez aurre ireki eta eskaini nahi dizkie aisialdiaren murgilduta dabilen hezitzaileei, gurasoei, irakasleei eta teknikariei. Halaxe kontatu digute Agurtzane Etxeberria eta Joxe Jimenez bultzatzaileek.

### Nork sortu du Aisia biziz aldizkaria eta zerk bultzata?

Kattamixar Federazioak sortu du. Bizkaiko eta Gipuzkoako Urtxintxa Eskolen federazioa da berau eta Urtxintxak egiten duen lana kaleratzeaz arduratzen da, eta zentzu horretan, aisialdi arloa pixka bat sustatzeko eta kaleratzeko gogoia sumatzen genuen. Horretarako tresna egokia izan zitekeela pentsatu genuen.

### Zentzu horretan, zertarako balio dezake aldizkariak? Zer funtzio ikusten diozue?

Alde batetik, jende eta talde ugari dabil aisialdiaren lanean, programa asko daude, ekipamendu ugari, teknikari mordo bat dabil honen inguruan lanean... Aldizkaria lan hori guztia balioes- teko eta ezagutzera emateko gune bat izan liteke.

Beste aldetik, horren inguruan la-

nean ari garenok harremanetan egote- ko eta elkarren berri izateko espazio bat izan liteke, sarritan bakoitza bere alde- tik baikabiltza, ondokoa zertan dabilen jakin ere egin gabe.

Azkenik, aldizkaria guztiz euskaraz izango da, eta zentzu horretan, euska- razko materiala sortu eta zabalduko du.

### Nori zuzendua dago Aisia biziz?

Ikuspuntu zabala izan dezan nahi dugu, eta beraz, ez da aisialdiaren zuzen- nean inplikaturik daudenentzat soilik, aisialdiaren inguruan dabilen guztie- tan baizik. Hor barruan sartzen dira hezkuntza ez formalean dabilen hezi- tzaileak, elkarteak eta eskolak; hez- kuntza formaleko ikastetxeak, ikasleak eta irakasleak; gurasoak; instituzio eta- ko teknikariak; ludotekak, haur txoko- ak, gazte lekuak, kultur etxeak, gazte informazio bulegoak, euskaltegiak... Horiei guztiei aisialdi egoki bat garatze- ko tresnak eskaini nahi dizkiegu aldiz- kariaren bitartez.

### Ikuspegi zabal horren barruan ko- katurik, zer da zuzentzat aisialdi?

Aisialdiaren modu positiboan bizitze- ko hainbat balio landu behar direla uste

# Suspertze soziokultu- ralari eta aisialdiko hezkuntzari buruzko aldizkari berria



dugu. Gaur egun kontsumismoaren inguruko balioak bultzatzen dira, badirudi aisialdia modu egokian gozatzeko ordaindu egin behar dela. Guk beste alternatiba bat proposatzen dugu horren aurrean, beste balio batzuk lantzen diren aisialdia bultzatzen dugu: elkarlana, hezkidetzak, elkarbizitza... Horrenbestez, aisialdi mota hori lantzen duten programa asko agertuko dira aldizkarian.

### **Edukiari dagokionez, zer mamituko da?**

Zenbaki bakoitzean gai nagusi bat landuko da, eta horrez gain, beste hainbat atal izango ditu: kronika, iritzi artikulak, elkarriketa, ibilbide didaktikoen proposamenak, berriak, gidak... Adibidez, iritzien atalean, zenbaki bakoitzean lau esparru egongo dira: bat gurasoena, bigarrena hezitzaileena, hirugarrena teknikariena eta laugarrena aisialdiarekin zerikusirik ez duen jendearena. Gaiak ere modu irakurterrazean landuko dira.

### **Nolako itxura izango du?**

Dena kolorez izango da eta 20x26,5 cm-ko neurrikoa. Irudi aldetik erakargarria egiten saiatu gara, argazkiei garrantzia emanez eta behar diren bezala landuz. Arina, alai eta irakurterraz izango da.

### **Zenbateko maiztasuna izango du?**

Urtean lau ale kaleratuko dira, urtaroko bakoitzeko bat. Garai horietako bakoitzean behar konkretu batzuk sortzen zaizkigu eta horiei erantzuna eman asmoz jorratuko ditugu edukia. Esate baterako, Gabonak inguruan jostailuen afera sortzen da. Udaberrian, eguraldi onak hasten direnean, kanpora ateratzeko joera izaten dugu, eta orduan ibilbideek eta aterpeek hartzen dute garrantzia. Uda sasoiaren ostera, udalekuak nagusitzen dira. Beraz, garaian garaikoari erantzun dio aldizkariak, lanean aritu behar dutenei nahiz zerbitzuen edo eskaintzaren bila joaten direnei begira.



### **O. zenbakiaren promozioa egiten hasiak zaudete. Nolako harrera izan du jendeak proiektu berri honen inguruan?**

Orokorrean jendeak aportazio oso ona izan litekeela komentatu digu. Gurasoek ere horrelako zerbaiten beharra ikusten zuten. Eta beste aisialdi taldeei ere proiektu interesgarria eta baliagarria iruditu zaie.

### **Nola eskuratu ahal izango da aldizkaria?**

Lehen zenbakia ikastetxe guztietara, aisialdiko taldeetara, haur txokoetara, gazte lekuetara, gazte informazio bulegoetara, guraso elkarteetara, euskara elkarteetara eta abar banatuko dugu.

Ondoren, harpidetza bidez banatuko da. Harpidetza urteko 20 eurokoa izango da.

### **Nora jo behar du harpidetu nahi duenak?**

Bizkaiko zein Gipuzkoako Urtxitza Eskoletara jo dezake. Hauek dira helbideak eta telefono zenbakiak:

Bizkaiko Urtxitza Eskola  
Zabalbide, 26, behea  
Bilbo  
Tel.: 944 320 445  
E-posta: urtxin@euskalnet.net

Gipuzkoako Urtxitza Eskola  
Mundaiz bidea, 8-2. E  
20012 Donostia  
Tel.: 943 270 033  
E-posta: gipuzkoa@urtxitza.org

### **O. zenbakiaren aurrerapena**

Jolasa eta jostailua izango dira Aisia biziz aldizkariaren lehen zenbakiaren ardatz. Gai nagusia horri eskainia egongo da eta horren barruan hainbat atal bereiztuko Lehendabizi, erreportaiak. Maite Garaigordobilek jolasaren garrantzi pedagogikoaz iritzia emango du. Jarraian euskara, kooperazioa, hezkidetzak, bideojokak... izango dira aztergai. Eta erreportaiaren azken zatian euskal jostailuen ekoizpenari buruzko informazioa bilduko da: entresak, laguntzak, merkatua...

Gaiaren bigarren atalean esperientziak bilduko dira, eta hor ludotekaren inguruko informazioa emango da, batik bat: ludotekaren historia eta funtzioa, hainbat ludotekaren esperientzia, ludotekaren ibiltaria, jostailuen museoak...

Hurrengo atala gida izango da eta hor informazio praktikoa topatu ahal izango da: jostailuen gida (gurasoei eta irakasleei begira) eta Euskal Herriko ludotekaren mapa.

Jarraian, ekintzak izeneko atalean jolasen eta jostailuen fitxak izango ditu.

Eta bukatzeko, baliabideen berri emango da; hots, non zer dagoen: ikasmateriak, teknologia berriak, argitalpenak...

Gai nagusi horrez gain, Imanol Urbietari egindako elkarriketa irakurri ahal izango da.

# Argitalpenak



**Usoa**  
Patxi Zubizarreta  
EREIN

Usoaren bidaia kilikagarria da liburu honen ardatz. Urtebetetzetako opari bezala Eskandinaviarako bidaia jasoko du eta familiarekin joango da. Autobusez joango dira eta era guztieta-ko bidaiarietara egingo dute topo. Une misteriosuak, arriskutsuak... denetik biziko dituzte, baina beti umoretsu. Usoarentzat bidaia batez ere kilikagarria izango da, urtebetetze opari gogoangarria benetan •



**Euskal Herriko historia**  
Susana Truchuelo eta Marta Truchuelo  
IBAIZABAL

*Euskal Gaiak* izeneko bilduma berria sortu du Ibaizabal argitaletxeak. Euskal Herriko kulturarekin zerikusia duten hainbat gairen bilakaera historikoa erakusten dute. Aditua ez den irakurlearentzako argitalpenak dira eta mementoz bost liburu kaleratu dira: artea, literatura, museoak, pintura eta historia gaietako buruzkoak •



**Iraganeko zibilizazioen enigmak**  
Atlantida Taldea  
GAIK

Arkeologia eta aurkikuntza modernoak leienda eta mitoarekin mahasten dira liburu honetan, bost kontinenteetako 20 kultura galdu, enigmatiko, oparo edo mitikoren berri emateko, irakurlearen jakin-mina sortzeko eta ezkutatzen duten egia agerira agertzen saiatzeko. Besteak beste Atlantida, Knsos, Teotihuacango piramideak, Pazko Uhartea... aipatzen dira •



**Hi bai matxista zikina!**  
Antton Dueso  
DESCLÉE

Gazteei zuzendutako liburu honetan Bixintxo mutil gaztea da protagonista. Ustez pertsona moderno eta liberala da, beti giza eskubideen alde hitz egiten duena. Baina horixe baino ez, hitz egin. Horregatik diote amak eta arrebak matxista dela. Berak ez dela hala frogatu gura du eta etxeko lan guztiak egingo dituela hitz ematen du. Eta behin hitz eman ondoren, egin egin behar! •



**Korri, Xalto ta Brinko kantari**  
KORRI, XALTO TA BRINKO

Pailazo talde honek bere lehen diskoa kaleratu du. Azken lau urtetako lanaren emaitza izan da eta guztira hamabi abesti ditu. Orain arte argitaratuta dituzten ipuinetako pertsonaien kantak dira: Trapujale, Zabarre, Marinazkane... Pailazoekin batera Tomas Garbizu Lezoko Udala Musika Eskolako ikasleek abesten dute. Gidoi batek egiten du abestien arteko lotura •



**Tximistorratzeko kukua**  
Andreu Sotorra  
GILTZA

Liburu honetako protagonistaren amaia nagusia okupa zen berak 9 urte zituenean. Beretzat arraroa zen neba nagusia mendira bizitzera joatea basurdeekin eta txorimaloekin, gero legerdunentzako ospitale abandonatu batera joatea, eta azkenik telebistan agertzea tximistorratza baten muturrean zintzilik. •

# Euskal Herriak bere hezkuntza

Abenduaren 20an milaka lagun ibili ziren Iru eko kaleetan Euskal Herriarentzat eskola eredu propioa aldarrikatzen eta Madrilen eta Parisen hezkuntza inposaketak salatzen. Manifestazioa Hezkuntza Deialdiak deituta egin zen.

## Zer da Hezkuntza Deialdia?

Hezkuntza Deialdia, Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak sustatuko deialdizabala da. Hezkuntza sistema propio baten alde gauden lagunok osatzen dugu aipatu Deialdia, Euskal Herriko hainbat eskualdetakoak, hezkuntza ziklo guztietakoak (haur hezkuntzatik unibertsitatera), kolektibo guztietakoak (gurasoak, irakasleak, ikasleak, herritarrak), sare ezberdinetakoak. Hezkuntza Deialdia guztion parte hartzeari irekita dago, areago, guztion parte hartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

## Zerk batzen gaitu?

Batzen gaituena zera da: geure herriak bere hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea duenaren ustea, eta azken aldi honetan pairatzen ari garen, lege, dekretu eta dekretuondokoen aurrean daukagun kezka.

## Zer proposatzen dugu?

Gurea, hitzak dioen bezala, deialdi bat da, hezkuntza sistema propioaren alde kalera ateratzeko deialdia, lege eta dekretu arrotzei aurre egiteko deialdia, behar dugun hezkuntza eredia eraikitzen jarraitzeko deialdia. Eta nori egiten diogu aipatutako deialdi hori? Lehenik eta behin, hezkuntza komunitateari, euskal hezkuntza komunitatea aktibatu eta mobilizatu behar delakoan gaudete. Eta bigarrenik, gizarteari, herritarrei, hauek ere hezkuntzan inplikatu behar dutela uste baitugu. Zentzu honetan, Hezkuntza Deialdia Azaroaren 8an Donostian eginiko batzarrean sortu eta bere ekimenak bururaino eramaten dituen desagertuko da.



## Zehazki, zein ekimen planteatzen dugu?

Bi ekimen egin dira:

- Hezkuntza sistema propio baten aldeko eta inposaketen aurkako nazio manifestaldia.

- Hezkuntza sistema propio baten aldeko Protokoloa. Protokoloaren bidez, euskal hezkuntza komunitateak jarrera komun bat har dezan proposatzen dugu, pairatzen ari garen eraso guztien aurrean. Protokolo hori aurkeztu eta eztabaidatu ostean, orain gauzatzea dator.

## Zein da Hezkuntza Deialdiaren antolaketa?

Hezkuntza Deialdiak antolaketa sinplea bezain eraginkorra izan nahi du. Alde batetik, Deialdia osatzen duten 200 laguneren zerrenda dago, hauetako bakoitzak ekarpen txiki bat egingo duelarik. Beste alde batetik, Hezkuntza

Deialdiaren nazio batzordea osatuko da, planteatzen diren ekimenak (nazio manifestaldia eta protokoloa) kudeatzeko. Batzorde honetan nahi duen orok parte hartu dezake. Batzordearen bileren akta Deialdiko kide guztiei bidaliko zaie e-mailez. Berarekin harremanetan jartzeko bideak honako hauek dira:

Telefonoz: 696 200 570 E-mailez: [hezkuntzadeialdia@euskalherria.org](mailto:hezkuntzadeialdia@euskalherria.org)

## Zein da erakundeen papera honetan guztian?

Hezkuntza Deialdia pertsonok osatzen dugu, baina noski, hezkuntza arloko erakundeek badute zeresanik eta zer eginik. Bakoitzaren parte hartze maila definitzeko asmoz, eta baita bakoitzak daukan ekarpenak eta ideiak jasotzeko asmoz, informazioa eskaini diegu lehenengo unetik, eta elkarlanean aritzeko proposamena luzatzen diegu.

## Euskal eskola publikoa hausnarketan

**Sortzen-Ikasbatuazek antolatutako jardunaldia**

**Non: Donostiako Ibaetako campusean**

**Noiz: 2004ko urtarrilaren 17an**

Hausnarketa prozesuan parte hartu nahi eta, dena delakoagatik, Plan Integralaren proposamen irekia ezagutzen ez duen orok, 943 303 504 telefono zenbakian edota [orokorra@sortzen-ikasbatuaz.com](mailto:orokorra@sortzen-ikasbatuaz.com) helbide elektronikoan eska dezake.



# Euskal eskola publikoa hausnarketan

Aspalditxo honetan, eremu eta estamentu anitzetatik, aurrera begiratzeko beharraren mezua ari zaigu iristen; aukera berri baten bila abiatzeko beharra, non euskal hiritarrok gure etorkizuna erabakitzeko ahalmena izango dugun, gure interesak modurik egokienean defendatuko dituzten erabakiak askatasunean hartuz eta kudeatuz.

Egoera berri hori eta berau baldintzatuko duten barne zein kanpo faktoreak direlakoak izanik ere, Euskal Herrian inork ez du zalantzan jarriko goi mailako politikan hartzen diren erabakiek gizarte alor guztietan nabarmenki eragingo dutela -Erakunde Publikoen bidez, nagusiki- eta, bereziki, hezkuntzaren esparruan; hezkuntza baita, dagokion sistemaren bidez, erabaki politikoetatik eratorritako eredu sozial, linguistiko, kultural, ekonomiko eta abarrek transmititzen dituena.

Euskal hezkuntzaren eremua ere ez da egoera berri baten aurreikuspenean atzera geratu. Era esporadiko eta osagarrian izan bada ere, herri gisa dagokigun hezkuntza etorkizuna planifikatzeko ahaleginak eta iniziatibak hartu izan dira. Baina, ziur asko, belaunaldiz belaunaldi galdutako eremua azkarregi berreskuratu nahi izan dugu; eta presaren horren beraren eraginez, lehen momentutik zehaztu nahi izan dugu gure azken xedea zena, alegia, Euskal Hezkuntza Sistemaren bizkar hezurra izan behar duen proiektua; baina gure ezagarrari eta dimentsioetara egokitutako eskema propioak erabili beharrean, egungo sistemak ezartzen dituen jokorauak erabili ditugu, mimetikoki; kontuan hartu gabe erabilitako jokorau horiek kudeaketa maila txiki baten aukera baino ez dutela irekia uzten; eta, beti ere, Espainia edo Frantziako Hezkuntza Ministerioen gainbegiratuaren menpe.

Hori dela eta, iniziatiba horiek guztiek ez dute, momentuz, espero zen

emaitzarik eman, besteak beste, interes anitzei lotutako epe motzeko ikuspegi hartu dutelako; irakaskuntzak maila guztietan pairatzen duen atomizazioa eta egungo erakundeekiko mendekotasuna ahaztu gabe. Gauza bera gertatu da hezkuntza eremutik at hartutako beste hainbat iniziatibekin ere. Ahalegin horietatik guztietatik ikasi egin behar dugu eta ikasitakoaren harira jokatu. Gure gizartea, Euskal Herriko hiritarrok, den-denak aterako gara irabazle.

Sortzen-Ikasbatuaz, ikastetxe publiko anitzen eskola komunitateak biltzen dituen elkarte gisa, ondo ezagutzen dugu gure eremua, eskola publikoa, alegia. Eskola publikoaren ahul guneak ezagutzen ditugu, baina baita haren/gure indar guneak ere; gainean ditugun mehatxuak ezagutzen ditugu, baina baita ditugun aukerak ere; eskolaren/gure gabeziak ezagutzen ditugu, baina baita bere/gure lorpenak eta gaitasunak ere; bere/gure beldurrak ezagutzen ditugu, baina baita bere/gure iniziatiba gaitasuna ere. Eta ditugun gaitasun eta aukerak aprobetxatu behar ditugu gabezi guztiei erantzuna emateko, Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren oinarri izan behar duten eskola publikoak proiektu baten inguruan egituratzeko.

Baina, zergatik eta zertarako Hezkuntza Sistema propioa? Hasteko, herri bezala gure beharrei guk geuk erantzuteko eskubidea eta beharra daukagulako. Baina ez bakarrik gure eskubidea delako; baizik eta, nagusiki, gure erantzukizuna delako. Datozen -eta gaurko- belaunaldien hezkuntza euskal hiritarren erantzukizuna eta ardura delako. Ezagutza unibertsala bertakoaren ezagutza sakonetik abiatzen delako, norbanakoarengandik (ni) eta inguruetatik (gu) hasita. Berdintasunean oinarrituko den gizarte hobeto baten bidean, aldaketak eragitea ahalbidetuko dieten baloreetan hezi nahi baditugu

gure gazteak, gure gizartearen egungo egoera ezagutu eta ulertzetik hasi behar dugulako. Gure gizartearen eta kulturaren nolakotasunaren zergatiak ezagututa eta ulertuta soilik, ezagutu eta ulertuko ditugulako beste pertsona, gizarte eta kultura diferente batzuk. Elkar ezagutzatik eta elkar ulermenetik soilik etorriko delako benetako integrazio soziala. Berdintasunean oinarritutako integrazio sozialaren ikuspegitik soilik garatuko dugulako gure ingurunearen eta parte garen munduaren ikuspegi kritikoa. Ikuspegi kritikotik soilik erakiko ditugulako hobekuntza errealak eragingo dituzten ereduak. Horrela soilik lortuko dugulako mundu anitzean, hiritar guztion –urdin, berde zein more– ekarpenak beharrezkoak dituen munduan, askatasunez eta autonomoki moldatzeko garapen integrala (norbakoa zein soziala). Azken finean, horrela bakarrik lortuko dugulako hezkuntzaren benetako kalitatea.

Azken urteotan aplikatu dizkiguten hezkuntza legeak gure ikastetxeetako hezkuntza proiektuak estutzen ari dira, hainbat alorretan bideraezin bihurtu arte; horretaz gain, proiektuen garapena eta hobekuntzak eragiteko ateak itxi egiten dizkigute legeok.

Ezin ditugu aipatu gabe utzi eskola publikoak etxean bertan dituen trabak, Bizkaitik hasi eta Nafarroaraino, Arabatik hasi eta Lapurdiraino, Irundik hasi eta Lanestosaraino... Ikasleriaren euskalduntzea ez dago bermatuta; hainbat herri eta lurraldetan euskararen presentzia testimoniala da; testu liburu gehienek Madrilek edo Parisek diseinatutako curriculumek zehazten dituzten irizpideen baitako Euskal Herriaren ikuspegia adierazten dute eta, Hegoaldeko kasuan, dagokion gobernu autonomoak egokitu(?) edo/eta baimendutakoa; ikastetxeen autonomia arautu gabe dago eta, praktikan, ez dago autonomiarik: batetik, ikastetxeen ekimena estuki tutelatua dago; bestetik, ikastetxeen erabaki gaitasuna erakundeen onespeneraren menpe dago erabat; horren eraginez, ez da pizten partaidetzarako motibaziorik; bestalde, bertan ga-

ratzen den legedia, kasurik onenean, estatutik datorrigun legediaren egokitza-pena baino ez da, estatuak zuzengarria baita bertan garatutako guztia, haren legediak bertokoen gainetik daude eta.

Horren guztiaren harira, 2000. urtearen bukaera aldera, ikastetxeetan sumatzen zen etsipen giroa nolabait suspertu nahian, Sortzen-Ikasbatuazek eskola publikoaren barne-hausnarketa prozesu bat abiatzeko inizatiba hartu zuen. Inizatiba honetan, gure aburuz, lozorrotik atera eta ilusioa berpizteko baliagarria izan daitekeen hausnarketa planteatu diogu hezkuntza komunitate osoari (guraso, ikasle eta langileria) eta, orokorrean, euskal gizarteari. Berezkoa eta eraldatzailea izango den eskola publikoaren proiektu baten inguruko hausnarketa planteatzen dugu, non, ezinbesteko deritzogun eskola eta hezkuntza komunitateko kideon partehartze aktiboaren aldeko apustua egiten dugun, Euskal Herriko eskola publikoetan eragingo duten erabaki guztietan gure partaidetza aldarrikatuz, subjektu eskumendun gisa. Abiapuntu modura, bi galdera botatzen dizkiogu Euskal Herriko hezkuntza-komunitateari:

- Zein izango dira eskola publikoaren ekarpenak Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren egituratze prozesuan?

- Zein eskola eredu osatu behar du eskola publikoak eraikitzeke dagoen hezkuntza sistemaren ezinbesteko oinarri izan dadin?

Hausnarketa errazteko asmoz, datozen 4 urteetan garatuko litzatekeen Plan Integral gisa, proposamen-zirriborro ireki bat jarri dugu mahai gainean. Proposamen ireki honetan, ibilbide historikoaren diagnosi txiki bat egiten dugu, batetik; bestetik, ezinbestekoak diren ekarpenekin osatu beharreko elementu batzuk planteatzen ditugu, eskematikoki (euskalduntzea, eduki eta balioen curriculum, kudeaketa eta pedagogia autonomia, antolaketa, partaidetza...). Eskema honen helburua zera da, Eskola Publikoaren balizko euskal ereduaren definizioan lagungarri izan daitezkeen honako ardatz

hauek agerian uztea: nor garen, zer egin nahi dugun, zergatik eta zertarako nahi dugun hori eta nola gauza dezakegun.

2003ko apirilean hasi eta abenduan bukatuko den iritziz eta irizpide kontraste-prozesua eramaten ari gara aurrera. Prozesu hau hainbat mailatan ari da gauzatzen: maila pertsonalean, talde mailan, ikastetxeetan, irakaskuntzan diharduten elkarrekin, sindikatuekin, alderdi politikoeekin eta erakunde publikoekin. Kontraste prozesuaren ondorioz Plan Integralari egindako ekarpen eta iradokizun guztiak bilduko ditugu txosten batean, abenduan zehar. Hausnarketa prozesuaren bukaera eta balizko elkarlanerako dinamikaren abiapuntu gisa, **“Euskal Eskola Publikoak Hausnarketan”** izenburupean, ekarpenetatik ateratako ondorioak elkar jartzeko jardunaldi ireki bat egingo dugu. Ondorio horiek erakutsiko digute zeintzuk diren Euskal Herriaren etorkizunean lehen mailako eragile estrategiko izan behar duen eskola publikoak egituratzeko daukagun aukera eta ados ditzakegun irizpide komunak.

Aipatu **jardunaldia 2004ko urtarrilaren 17an gauzatuko da, Donostiako Ibaeta Campusean**. Hemendik, topagune, hausnarketa eta prozesu honetan partehartze aktiboa izan daitezen, eskola publikoan ari diren/garen pertsona eta entitate guztiak gonbidatu nahi ditugu. Komuna den eginkizun honetan ezinbestekoa da eskola eta hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztion ekarpena eta bultzada, maila pertsonalean zein kolektiboan. Denok daukagu zer adostu eta erabaki nahikoa. Gizartearen bultzadarekin batera, definituko den euskal eskola publikoaren eredu berria gauzatu bidean, beharrezkoa da Erakunde Publikoen apustu irmo eta ausarta, bai jarrera irekiak eta malguak erakutsiz, bai beharrezkoak izango diren baliabideak kontuan hartuz. Euskal Herrian, eskola publikoaren eredu berria posible eta beharrezkoa baita.

Juankar Aretxabaleta  
*Sortzen-Ikasbatuazekolehendakaria*

# Muga guztien gainera ...euskaraz!

## Arangoiti, elkartasunaren ikastola

Orain arte Irunberriko arroi-  
leko saiek biologoen, omitologo-  
en eta zaleen arreta erakarri  
izan badute ere, aurten euskal-  
dun guztiona bereganatu du  
Arangoiti ikastolakoak. *Herriz  
herri, Irunberri* leloarekin iri-  
farrez agertu zitzaigun iazko ur-  
te hasieran Nafarroa Oinezeko  
jaia iragarri. Zoritzanreko egu-  
raldiaren festa eguna bertan be-  
hera gelditu eta gero, *euroak  
auri, etsi arietsari* esanez la-  
guntza eskatu zigun.

Euskal Herri osotik Irunberri-  
ra ailegatutako euroei esker  
Arangoiti ikastolak eraikin be-  
rria egin ahal izango du.

Baina ikastola eraikina baino  
zerbait gehiago da. Proiektu pe-  
dagogiko sendoa, irakasle saia-  
tuak, guraso langileak eta ikasle  
gogotsuak dituen ikastola da.  
Txikia izan arren, badu zer eraku-  
tsia. Inplikazioa eta partaidetza  
azken muturreraino eramaten  
dituzte, eta eskola eredu garria  
da horretan.



Nora URIBETXEBERRIA

Iazko Nafarroa Oinezek uste baino  
oihartzun handiagoa izan zuen komu-  
nikabideetan eta jendearen artean. Ur-  
teetan gogoratuko dugu eguraldi txar-

rrarengatik bertan behera gelditu zen  
festa eguna, eta baita ondoren jendeak  
eman zion laguntza ere.

Baina Arangoiti ikastola ez zen  
egun horretan ireki. 24 urteko ibilbidea  
egina zuen ordurako, eta oraindik ere  
aurrera jarraitzen du. Urteen poderioz,  
sendotuz eta haziz joan den ikastola da.  
1980. urtean sortu zen zazpi ikasle-  
kin. Bi urte beranduago herriko ikasle-  
en %20 joaten zen bertara, eta gaur  
egun, aldiz, %80. 2 eta 12 urte bitarteko  
120-130 haur inguru daude Irunberri-  
n, eta horietatik 88 ikastolan dabilta.







Herrian bada eraikin berria eta ego-  
kia duen eskola publikoa, baina jende-  
ak ikastolaren aldeko apustua egin du.  
Zergatik? Euskararen alde daudelako,  
bertako langileen inplikazioa handia  
delako eta horrek animatu egiten ditue-  
lako, herriari begira ekitaldi ugari egi-  
ten dituztelako, eta azken finean, ikas-  
tolako proiektuan sinesten dutelako.

### Ikastolako proiektuaren be- rezitasunak

Ikastolan egiten den lanak eta lana  
egiteko moduak erakartzen ditu gura-  
soak ikastolara, dudarik gabe. Nora  
Uribetxeberria zuzendariak dioenez,  
“erabiltzen dugun metodologia oso ak-  
tibo da. Haurrek aktiboki hartzen du-  
te parte ikas prozesuan”. Orain dela ur-  
te batzuk eleanitz proiektuan sartu zi-  
ren, eta ingelesaren ezarpen goiztia-  
rrak ere erakartzen ditu gurasoak. “Mu-  
sikari eta dantzari ematen diogun ga-  
rrantzia ere balioesten dute. Urtero jo-  
aten gara haur kantari txapelketara.  
Dantza eta txistu taldea ere baditugu,  
eta urtero egiten dugu dantza emanal-  
di bat herrian”.

### Gurasoak dira zutabe

Arangoiti ikastolako gurasoek ikas-  
tolan zuzeneko partaidetza dute. De-  
nek egiten dute zerbait, batean ez bada  
bestean. Eta erabakiak ere beraiek har-  
tzen dituzte. Ikastola kooperatiba bat  
denez, erabakiak asanbladan hartzen  
dituzte. Norak dioenez, “familia baten  
moduan funtzionatzen du ikastolak;  
gurasoek zer egiten den ikusten dute,  
eta elkarreragin handia dago”.

Ikastola txikia izateak gurasoen

partaidetza erraztu egiten duela uste du  
zuzendariak. “Zenbat eta jende gehi-  
ago egon, zaildu egiten da inplikazioa  
lortzea, eta partaidetza ziurtatzea ere  
bai. Zeren jendeak gaur egun mila  
gauza ditu. Hemen ere gertatzen zaigu  
hori. Askotan esan izan dugu ez daki-  
gula zenbat eskatzen diegun gurasoei,  
bakoitzak bere lanak eta gauzak baiti-  
tu. Eta hala ere batzordeetan sartuta  
daude”. Azken bi urteetan, Nafarroa  
Oinezen antolaketa zela eta, buru bela-  
rri aritu dira lanean, denak. “Ezin ziren  
etxean geratu”.

### Pedagogia Batzordean gu- rasoak ere bai

Gurasoek hainbat batzordetan har-  
tzen dute parte: ekonomia, mantenua,  
pedagogia, erlazio instituzionalak eta  
ekitaldiak.

Pedagogia batzordearen bitartez,  
gela barruan egiten dutenaren nondik-  
norakoak erabaki ditzakete irakaslee-  
kin batera. Norak azaltzen digunez,  
“batzorde horretan egin genuen azken  
lana ikastetxeko hezkuntza proiektua  
birpatsatzea izan zen. Ondoren, asan-  
bladan aurkeztu zen, gurasoek ikasto-  
lako filosofia zein zen jakin zezaten”.

Irakasleen klaustroan proiektu ku-  
rikularra lantzen ari zirenean ere, ba-  
tzorde horretan zenbait puntu eztabai-  
datu zituzten.

Hurrengo lana balioen gaiari hel-  
tzea izango da. “Beti kezkatzen gaituen  
gaia da”, dio Norak. “Hezkuntza  
proiektuan zehaztuta daude zein ba-  
lio landu nahi ditugun: norberarekiko  
errespetua, besteekiko errespetua, na-  
turarekiko errespetua... Baina zertan  
zehaztu eta nola transmititu hori gu-

rasoek aktiboki parte har dezaten? Ho-  
rrek kezkatzen gaitu. Zeren, askotan  
tutoretzan lantzen dira balioak, baina  
gurasoen lana ere ezinbestekoa da”.  
Nahiz eta oraindik dena zehaztu gabe  
eduki, puntu konkretu batzuen ingu-  
ruan halako txantilo edo eredu batzuk  
banatuko dituzte gurasoen artean eu-  
ren iritzia jasotzeko. “Horrekin guraso-  
ek zer balio transmititu nahi dituzten  
jakin nahi dugu, zein diren garrantzi-  
tsuak beraientzat, nola ulertzen duten  
transmisio hori, zein lan iruditzen  
zaien eskolak egin beharrekoa, zein  
den beraien edo familien lana... Hori  
guztia eztabaidatu nahi dugu elkarre-  
kin. Nik uste dut gauza horiek guztiak  
bizirik egon behar dutela eta behin eta  
berriz birmoldatu behar direla, orain  
dela 10 urte egindako eta erabakitako  
gauzen berri ez baitaki sartu berri den  
gurasoak”.



## Herrian aldeko giroa, uñale- txean ez

Irunberriko giroa ez da euskalduna, baina orain dela 24 urte ikastola abian jarri zutenak euskararen alde zeuden. AEKra guraso asko joaten dira egun, eta ikastolatik 12 urterekin ateratzen diren ikasleek Zangotzako ikastolan jarraitzen dute euskaraz ikasten. Ondoren, Batxilergoa euskaraz egin nahi baldin badute Iruñera joan behar dute. Iaz eta aurreko urtean atera ziren ikastolako ikasle guztiak Iruñean euskaraz ikasten jarraitzen dute, hots, ikasleen %100ak.

Herriko haur eskola ikastetxe publikoan baldin badago ere, asko dira hanibili ondoren 2 edo 3 urterekin ikastolara jotzen dutenak.

Urteetako lanaren ondorioz, herri-  
tarrek ikastolan egiten den lana ikusi dute, eta horrek aldeko jarrera eragin du. Udalaren jarrerak, ordea, berdin jarraitzen du: oztopoak jartzen. *“Orain daukagun eraikin zaharra udalarena da”* azaltzen du Norak. *“Berogailua-  
rentzako egurra eta argia ordaintzen ditu, eta kito, besterik ez. Argindarra-  
raren potentzia gehiago ere ez digu jar-  
tzen”*. Udalaren jarrera argia dela dio ikastolako zuzendariak. *“Ez da gure arazoa, esaten dute. Zuek nahi duzue-  
lako zaudete hor”*.

Herritik kanpo ere txanponaren bi aldeak ikusten dira. Zonaldetik laguntza handia jaso zuten Nafarroa Oinezen antolaketarako, eta euskararen inguruan biltzen den jendea, sentsibiltatea eta gaitasuna badagoela ohartu ziren. Nafar Gobernuaren aldetik, ordea, guztiz kontrakoa.

## 2005erako legeztatpena

Euskararen Legea egin zenean, Irunberri eremu ez euskaldunean gelditu zen. Horrek, eskola publikoan D eredia irekitzeko bidea itxi zuen. Ikastolako gurasoek euskarazko eta ikastolako ereduarekin jarraitu nahi zuten, baina printzipioz ezinezkoa zenez, legea aldatzeko saiakera egin zuten. *“Lehendabizi D eredia eskatu nahi genuen, eta behin hori lortutakoan, ikastolaren ereduarekin jarraitzeko negoziatzea. Bagenekien utopikoa zela, baina probatzea erabaki zen”* gogora-

tzen du Norak. *“Partidu guztiekin elkartu ginen eta gaia Parlamentura iritsi zen, baina ez zen ezer lortu”*.

Hala ere, ikastolarekin aurrera egitea erabaki zuten. Beraz, Arangoiti ikastola alegala bihurtu zen, Bianakoa, Tuterakoa eta Sartaguda-Lodosakoa bezala. Ikastola horiek administrazioarentzat ez dira existitzen, eta beraz, ez dute diru laguntzarik jasotzen Hezkuntza Departamentutik, Hizkuntz Politikatik baizik. Eta aurrean, hori ere nahiko lanekin.

Egoera horri irtenbidea emateko, Nafar Gobernuak esan du 2005ean legeztatuko dituela. Horretarako, ezinbestekoa da eraikinak legeak dioen baldintzak betetzea. *“Beste hiru ikastolako eraikinek baldintza horiek betetzen dituzte, baina gureak ez. Horregatik eraiki behar dugu ikastola berria, eta urtebete daukagu horretarako”* dio Norak.

Dena dela, legeztatpenak ez du esan nahi etorkizuna eta bideragarritasuna ziurtatuta dauzkatenik. Legeztatpena zein baldintzatan egiten den ikusi behar da (ratioak, Heziketa Berezirako eta testu liburuetarako laguntzak, eta abar). *“Bideragarritasunik gabe legeztatzen bagara ez dugu ezer lortzen. Legeak izango gara, baina bizitzeko dirurik ez baldin badugu...”*.

Edonola ere, Norak etorkizun osasuntsua ikusten dio ikastolari bideragarritasuna ziurtatuz gero. ●


## “Eskerrak ematen jarraitzen dugu”

*“Euroak euri, eutsi ametsari”*. Eta bai, Irunberriko haurrek ametsa egi bihurtuta ikusiko dute. Nafarroa Oinezen eguneko eguraldi txarraren ondorioz festa bertan behera gelditu zen. Malkoz busti ziren haurren, irakasleen eta gurasoen begiak. Bi urteko lana zapuztuta gelditu zen.

Hurrengo asteetan, ordea, uholdeak jarraitu zuen. Baina ez euri uholdeak, elkartasun uholdeak baizik. Euskal Herri guztiatik jendeak euroak bidali zituen. Azkenean 1.500.000 euro lortu zituzten. Horietatik 420.000 euro urriaren 19ko kalteak ordaintzeko bideratu dituzte, eta beraz, ikastola berriarentzat 1.080.000 euro izango dituzte.

Hasieran eraikuntza egitea soilik pentsatzen zuten, baina lortutako diruarekin jolas lekua eta futbol zelaia egiteko aukera ere izango dute. Eta horrez gain, hasieran ikastola zaharrek mahaiak eta aulkiak eramatea pentsatzen bazuten ere, lortutako diruarekin agian historian lehenengo aldiz mahai eta aulki berriak estreinatuko dituzte.

*“Benetan, eskerrak ematen jarraitzen dugu. Ez dakigu nola erantzungo diogun jaso dugun guztiari. Horrelako egoera berezian gertatu denez dena, ikastola ere egoera berezitik sortuko da. Elkartasunaren ikastola izango da”*.



# kultur

s r t z n u u

S r m n u l t z t z n u u t z e r s k u t n  
d z n l e u k r k  
k s k k, h r h r z k k. S r t z l r n  
s k t k z e r s k u t r.  
n t, n t s m n u t m u s k l z t n z.  
M e r u r k . H u u r k u t u r .



haziketa kultura baliabideak

**oisia**

**BIZIZ**



**ELKARRIZKETA:**  
**IMANOL URBIETA**  
**EUSKAL HERRIKO**  
**LUDOTEKEN MAPA**

**JOLASA ETA JOSTAILUA**